

KURIOSUA

BARREA

DIBERTIGARRIA

Dibertigarria

Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu

LEKEITIOKO ESKOLA PUBLIKOAN IZANDAKO
ZAINZEN ESPERIENTZIA LUDIKOA SISTEMATIZATZEN

BARRE

POZITASUNA
LAITASUNA

HOBETO
EZAGUTzea

Talde lana
bultzatzea

- jolas berriak ikas
- horiek frogatu
zein zen sentitzen
den jolasen.

.Dibertigarria.

.Lankideekin oso
ondo pasatu dute.

Hasieran unduritu-
ne eta gero alaitu-
suna

DIBERTIGARRI
NAHIZ ETA
NEKATUTA ETOR

TALDE KOHESIOA
LANTZEKO ERREKUR
TIBAK

DIBERTIGARRIA

KOOPERATZIOA

TALDEAN EGITE-
KO JOLAS EGOKIAK

ESTERIMINTAKO

- DIFRUTATU

Edizioa:

InteRed Fundazioa www.intered.org

Egilea:

Laura Modonato

Publikazioaren koordinatzailea:

Nora Silva Leis

Diseinu eta maketazioa:

Silvia Osés Lorente

Ilustrazioa:

Bittor Txakartegi Etxebarria

Argazkiak:

Lekeitioko Eskola Publikoa

Itzulpena:

Maialen Oliveri Korta

**ESKUBIDE BATZUK GORDETA:**

Publikazio honen helburua ezagutza eta ideia desberdinak aske trukatzea da, beraz doaki kopia-tu, zabaldu eta hedatu daiteke, beti ere jatorrizko jabea aitortuz eta helmuga komertzialik gabea izaten bada. Ezin daiteke eraldatu, antzaldatu edota beste publikazio bat sortu hau abiapuntu hartuta.

InteRed Garapenerako GKEda, Institutuzio Teresiarrek sustatutakoa eta Lankidetzarako Espainiako Agentziak kalifikatutakoa. InteRed, 11 delegazio desberdinez osatutakoa eta 16 herrialdeetako 70 erakunde eta gizarte mugimenduekin lan egiten duen erakundea da. 1992tik Hezkuntza arloan egiten duena, guztiontzat bizitza duhin bat izateko helburuarekin.

Publikazio hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) babestutako argitalpena da. Honen edukia bai InteRed baita egilearen erantzukizuna da eta ez du zertan GLEAren iritzia islatu behar.



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

AURKIBIDEA

Aurkezpena eta esker onak	4
Sarrera	10
Metodologia	12
1. Aurrekariak eta justifikazioa	14
1.1. Aurrekariak	15
1.2. Justifikazioa, proiektuaren deskribapena eta haren historiarena	18
2. Lekeitioko eskola publikoko esperientzia	22
2.1. Eskolaren aurkezpena	23
2.2. Proiektuaren diseinua eta InteRed Euskal Herria Fundazioaren eta Lekeitioko Eskola Publikoaren arteko harremanaren jatorria	25
2.3. Zerk bultzatu zuen ikastetxea “Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpaina parte hartzera	27
2.4. Lekeitioko Eskola Publikoan egindako esku hartzearen datu kuantitatiboak	29
3. Esku hartzearen ikuspegi teorikoa eta metodologikoa	32
3.1. Ikuspegi teorikoa. Ludopedagogia, jolasaren ahalmena	33
3.2. Metodologia	37
3.2.1. Ikasleekin esku hartzen	37
3.2.1.1. Ikasleekin egindako saio baten adibidea	41
3.2.2. Irakasleentzako prestakuntza	45
3.3. Ebaluaziorako tresnak	48
4. Balorazioa	50
4.1. Ikasleen ikuspegia	51
4.2. Irakasleen ikuspegia	54
4.3. InteRed Fundazioaren ikuspegia	59
4.4. Esku hartzearen eragina	62
5. Ondorioak eta gomendioak	64
6. Bibliografia eta baliabide interesgarriak	68

Aurkezpena eta esker onak



“Nuevos modelos de desarrollo: Hacia una sociedad sostenible y equitativa. Fase II / Garapen eredu berriak: gizarte iraunkor eta zuzena helburu. II. fasea” proiektuarekin, InteRed Fundaziotik zaintzaren etikan eta jasangarritasunean oinarritutako gizarte eredu berri baten eraikuntzan sakondu nahi izan dugu, eta horretarako tresnak eskaini nahi izan dizkiogu hezkuntzako eta gizarteko hainbat pertsona eta eragileri, prestakuntzaren, esperimentazioaren eta esperientzia trukearen bidez. Hortaz, hasieratik argi izan dugu beharrezkoa zela hainbat pertsonak eta erakundek elkarrekin lan egitea, esperientzia elkarrekin garatzen joateko eta elkar aberasteko. Ildo horretan, InteRed Fundazioarentzat zoragarria izan da Lekeitioko Eskola Publikoarekin lan egitea eta konfiantzan nahiz elkarlanean oinarritutako harremana ezartzea. InteRed Euskal Herria elkarteko ordezkari naizenez, eskerrik asko ikastetxeko hezkuntza komunitate osoari zuen partaidetzagatik, eta eskerrik asko, nagusiki, Hezkidetzako arduradun den Mónica Eigureni eta 6. mailako tutoreei, bereziki Bittor Txakartegiri. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiot Nora Silviri, kanpainaren arduradunari, hark lan bikaina egin izan ez balu ez baikenituen lortuko erdietsitako emaitzak.

Mertxe Digón Arizmendi
InteRed Euskal Herriako ordezkaria

Urrats handia bidaian, apustu argia...

Behin batean, prozesu zoragarri batean murgildu nintzen.

Mezu elektroniko batekin hasi zen dena. Zaintzen etikari buruzko tailer bat ematera gonbidatu ninduten mezu hartan. Eta, antza denez, funtzionatu zuen. Udazkeneko egun batean elkartu ginen: batetik, irakaskuntzan urte askotako eskarmentua eta ezagutza ugari zituzten irakasleak, eta bestetik, neu, ideia argi gutxi batzuk nituela, baina horiek gorputzean esperimentatzeko irrikaz. Eta halaxe agertu nintzen, eta halaxe elkar ezagutu genuen. Aurrean zuten formatzaile hark koadernoak eta boligrafoak bazter batean uzteko eta oinetakoak kentzeko eskatu zien. Eta, ohikoa denez, harridura nagusitu zen haien artean... Ez zuten ezer ulertzen: “Zer egingo dugu? Zergatik erantzi behar ditut oinetakoak? Zertara etorri naiz? Gelaz nahasi naiz?”.

Harridura, zalantzak...

Eta zalantzetarako denbora gehiago eman gabe eta horiek argitu gabe, jolasean hasi ginen. Helduak garelako ahaztu genuen, eta bazter batean utzi genituen egunero gainean daramatzagun erantzukizun eta ardura guztiak.

Gorputz osoan barrena sentitu genituen jolasaren nerbioak, jolasaren bizkortasuna, korrika eta saltoka ibiltzearen gozamena. Berriz “txiki” bihurtuta, gauza sinpleekin gozatu genuen; geure akatsez barre egin genuen, baita gure kideekin ere, untxiaz, zorroz, nire aurpegi margotuaz. Hasieratik amaierara arte gozatu genuen. Eta bizitza “konplexu” batean hartutako denbora tarte horrek elkarrekin proiektu bat eraikitzeak aukera eman zigun.

Bizitzaren ikuspegi horren aldeko apustua egin genuen. Ludikotik abiatuta gure harremanak eraldatzeko apustua egin genuen; geure burua probatu genuen jolas bakoitzarekin eta dinamika bakoitzarekin, eta bestelako errealitate ludikoak sortu genituen, berriz gu geu izateko eta gure rolak nahiz mugak ahazteko aukera eman zigutenak. Beste urrats bat egitea, eta nire kideekin batera egitea, haiek laguntzen bainaute neure buruari ezartzen diodan muga bakoitza gainditzen. Geure burua probatzeak ibilbideaz beldurrik gabe gozatzeko aukera ematen digu.

Eta halaxe hasi zen gure prozesua, eta halaxe jarraitzen du...

Eta irakasleengana, ikastetxeko langileengana eta ikasleengana hedatu zen.

Ohartzen naiz zorte handia izan dudala prozesu honetan, ikasleetako askok esango zuten moduan, munduan zorte handien duen pertsona naizela. Izan ere, arreta osoa taldean jartzeko aukera zoragarria izan dut, taldea zaintzeko eta hori nola egiten den partekatzeko aukera, praktikan jartzekoa, etengabe ikasteko eta saio bakoitzean harrituta gelditzeko aukera. “Nire txikia” berreskuratu ahal izan dut, jolasean eta tailer nahiz saio guztietan beste batzuekin

saltoka, korrika eta barrez gozatzen duen txikia.

Eta hori Lekeitioko Eskola Publikoari zor diot, tartean izan diren irakasleei, baina bereziki Mónica. Hark jakin baitu babesten gaituen eta bidelagun dugun aterkia eraikitzen. Ikastetxeko lana InteRed Fundaziotik aurkeztutako proposamenekin uztartzea ahalbidetu duen logika sortu du. Eta Mónica eskertu behar diot, nagusiki, bizitu dudana guztia eta irakatsi didana guztia.

Mila esker bene-benetan, prozesu honetan buru eta bihotz aritzen uzteagatik!

Nora Silva Leis

Gizarte eraldaketarako hezkuntza teknikaria
InteRed Euskal Herria Fundazioa

Lekeitioko Eskola InteRed-ekin elkarlanean

Badira hiru urte, laster lau, InteRed ezagutu genuela. Lekeitioko Udaleko Berdintasun Batzordeko Hezkidetza teknikariak ikastaro bat egiteko aukeraz hitz egin zigunean baietz esan genion ziur jakin gabe zein eratako ikastaroa izango zen. Jolas kooperatiboen bidez hezkidetza eta zaintza landuko genuela esan ziguten. Gure ikastetxea ikasturte horretan sartuta zegoen HEZKIDETZA proiektuan eta interesgarria iruditu zitzaigun.

Larunbat baten elkartu ginen eskolako gimnasia gelan. Hogeitabat irakasle animatu ginen. Batzuk koadernoarekin azaldu ziren, apunteak hartzeko. Monitoreak esan zigunean zapatak kendu behar genituela eta ortozik jolastuko genuela gure aurpegiek urduritasuna erakutsi zuten. Hasierako ezustea gainditu ondoren, buru belarri sartu ginen jolasetan eta oso ondo pasatu genuen. Ahaztuta geneukan jolastea zer zen.

Hurrengo egunetan, ikastetxean ikastaro honi buruzko balorazioa egin genuenean, ados geunden nolako onuragarria izan zen denontzat eta gure ikasleekin lantzeko proposamen egokiak ikasteko baliogarria izan zela. Era berean denok ados azaldu ginen monitoreak taldea dinamizatzeko erakutsi zuen gaitasuna baloratzeko orduan, zein nolako gozotasunez hitz egiten zigun eta jolasetan parte hartzeko grina eta gogoa guregan nola piztu eta mantentzen jakin zuen.

Hurrengo ikasturtean ikastaro berdina jantokiko begiraleekin egitea pentsatu genuen. Azken finean, ikastetxean Hezkidetza Proiektu integrala daramagu eta begiraleak ere formakuntza jasotzea ezinbestekoa da. Oso ondo pasatu zuten. Oso ondo baloratu zuten eta era horretako formazio saio gehiago eskatu zituzten.

2014-2015 ikasturtean InteRed-ek “Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” proiektua azaldu zigunean, galdu ezinezko aukera iruditu zitzaigun. Ikasleak ongizate kolektiboaren inguruan sentibilizatzea garrantzitsua iruditu zitzaigun. Gizarte konpetitibo honetan, bakoitzak bere buruaz besterik arduratzen ez den mundu honetan, gure ikasleak beraien kideez arduratzea, lagunak zaintzea, talde kohesionatutako kideak izatea benetan baliogarria da. Horrela, hilean behin, 6. mailako ikasleekin lanean hasi ginen.

Zergatik 6. mailakoak? Eskolako nagusienak dira eta azken urtea da eurentzat. Institutura doaz eta jakin badakigu talde kohesionatuak badira arrakasta handiagoa izango dutela arlo guztietan.

Aurreko ikasturteetan ohartu ginen, adinez gora doazen neurrian, nolako arazoak azalarazten diren neska-mutilen artean: nola gazte batzuk bidean bakarrik gelditzen diren; nola batzuek erasoak jasaten dituzten eta laguntzarik ez duten izaten; nola helduen aurrean ezer ez dela gertatzen iruditu arren,

gazteen arteko bazterketak eta jazarpenak ematen diren. Sarritan beheko mailetan egin izan badugu indarra, ez ditugu nahi ahaztu eskolatik laster joango direnak.

Horregatik, ikasturte honetan ere lanean jarraitzen dugu LH-ko 6.mailako neska-mutilekin. Eta lanean jarraitzen dugu InteRed-ekoekin, gure eskolako proiekturako eta ibilbiderako izugarrizko ekarpena suposatzen duelako.

Monica Eiguren

Responsable de coeducación y profesora
Escuela Pública de Lekeitio

Sarrera



InteRed Fundazioa Institutuzio Teresiarrak sustatzen duen garapenerako GKE bat da, eta hezkuntza eraldatzailearen aldeko apustua egiten du, hau da, pertsona orok justiziaren alde, genero ekitatearen alde eta gizarte zein ingurumeneko iraunkortasunaren alde modu aktibo eta konprometituan parte hartzea eragingo duen hezkuntzaren aldeko apustua.

Fundazioaren jardute eremuen baitan, bereziki garrantzitsua da **genero ekitatearen eta zaintzaren etikaren ikuspegia**; horren bidez, InteRed Fundazioak emakumeek zein gizonak giza eskubideak bete-betean balia ditzaten lagundu nahi du. Emakumeen ahotsa eta esperientzia abiapuntutzat hartuta, InteRed Fundazioak zalantzan jartzen du garapen eredu nagusia, eta zaintza lanetan ekitatea eta erantzunkidetasuna sustatzeko lan egiten du.


Erakundeak genero ekitatearen eta zaintzaren etikaren arloan gauzatzen dituen programen barruan, dokumentu honetan “Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpaina aurkeztuko dugu, helburutzat duena bestelako garapen eredu bat eraikitzen laguntzea, naturaren eta gizakion zaintza agerian utzi, aintzat hartu eta ardatzean ipiniko duen eredua, natura eta gizakiak ezinbestekoak baitira bizia mantentzeko.

Horretarako, 2012. urteaz geroztik zaintzaren etikari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak egiten ditugu hainbat talderentzat: ikastetxeetako ikasle zein irakasleak, familiak eta gizarte zientzietako profesional izango direnak, besteak beste.

Dokumentu honen xedea Lekeitioko Eskola Publikoan gauzatutako esperientzia sistematizatzea da, InteRed Fundazioak 2012an abiarazi baitzuen lan prozesu bat bertan.

Helburu hori lortzeko, dokumentu hau honela egituratu dugu: aurrekariei eta justifikazioari buruzko kapituluan, lehenengoan, “Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpaina zertan datzan azaldu dugu, labur-labur, eta ezagutzera eman ditugu haren osagaiak eta kanpainen parte hartu duten taldeak. Bigarren kapituluan, sakonago aztertu dugu Lekeitioko Eskola Publikoko esperientzia, eta, ikastetxe hori kanpainen parte hartzera zerk bultzatu zuen azaltzeaz gain, egindako esku hartzeak izan duen garrantziari buruzko datu kuantitatibo batzuk eskaini ditugu. Hirugarren kapituluan, proiektuaren oinarri teoriko nahiz metodologikoak azaldu ditugu. Laugarrenean, kanpainaren onuradun izan diren irakasle zein ikasleen balorazioa aurkeztu dugu, eta lortutako eragina eta emaitzak azaldu ditugu. Amaitzeko, bosgarren kapituluan, ondorio gisa, zenbait gomendio erabilgarri eman ditugu, ekimena sustatzen jarraitzeko, bai Lekeitioko Eskola Publikoan, bai hura onuragarri dakiekeen beste ikastetxe batzuetan.

Metodologia



Kanpainaren historia berreskuratzeko eta Lekeitioko Eskola Publikoko esperientzia sistematizatzeko asmoz, zenbait dokumentu kontsultatu eta aztertu dira, hala nola:

- Jarraipenerako formulazioak eta txostenak, eta amaierakoak
- Esparru logikoaren matrizea
- Dokumentu teorikoak eta metodologikoak
- Ikasleekin zein irakasleekin egindako esku hartzeak sistematizatzeko fitxak
- Argazkiak
- Egindako esku hartzeen ebaluazioak

Bestalde, informazio kualitatiboa lortzeko, elkarrizketa sakonak egin zaizkie ikastetxeko hezkidetzako arduradunari eta 6. mailako irakasle bati, baita InteRed Fundazioko teknikariei ere, zehazki, kanpainaren arduradun eta esku hartzearen bideratzaile izan den pertsonari.

Era berean, ikasleekin egindako lan saio baten zuzeneko behaketa ere egin da.

Amaitzeko, ikasle onuradunen iritzia eta gogobetetze maila ezagutzeko, eztabaida talde bat antolatu da, non eskolako 5 ikasle ohiek parte hartu duten, eta ikasleek esku hartzean zehar sortutako materiala aztertu da. Ilido horretan, eskaintako denbora eta agertutako prestasuna eskertu nahi dizkiegu eztabaida taldean parte hartu zuten ikasleei: Paula Rodríguez, Naia Rojo, Aroa Intxauspe, Nahia Maguregi eta Ane Izagirre.

1.

Aurrekariak eta justifikazioa



1.1. Aurrekariak

INTERED FUNDAZIOA

InteRed Fundazioaren jardunaren ardatza Iparrean zein Hegoan hezkuntza proiektuak gauzatzea da, proiektu horien helburua egungo bidegabekeria sortzen duen errealitate sozioekonomikoa erabat eraldatzea eta pobrezia, desberdinkerien eta bazterketaren aurka borroka egitea izanik. 1992az geroztik, InteRed Fundazioak gizarte-hezkuntzako prozesuak sustatzen ditu, giza eskubideen ikuspegia eta genero ikuspegia abiapuntutzat hartuta. Hortaz, Hezkuntza erakundearen oinarritzko ardatza da, eta haren lana egituratzen du, bai nazioarteko lankidetzako proiektuetan, bai garapenerako eta herritartasun globalerako hezkuntzako proiektuetan.

Aipatzea merezi du InteRed Fundazioa estatu osoko 30 lantaldek osatzen dutela, zeinak honela banatzen diren: 21 batzorde, estatuko 5 ordezkaritza eta nazioarteko 4 ordezkaritza, Filipinetan, Guatemalan, Dominikar Errepublikan eta Bolivian kokatuak.

InteRed Fundazioaren ordezkaritza guztiek “Actúa con cuidados, transforma la realidad”¹ izeneko proiektua sustatzen dute estatu osoan. Proiektu horren bidez, gure gizarteari buruzko gogoeta bultzatu nahi da, eta bestelako garapen eredu baterantzko aldaketa eragin, zaintzaren etikan eta gizaki orok giza eskubideak baliatzeko erabateko aukeran oinarrituko den eredurantzko aldaketa, alegia. Helburu hori lortzeko, 2012az geroztik prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak gauzatzen dira, hezkuntza esparru formal eta informaletarako berariaz prestatuak, eta horien helburua da zaintza lanak, femeninotzat jo izan direnak eta emakumeek beren gain hartu izan dituztenak, merezi duten moduan balioestea eta onartzea horiek funtsezkoak direla bizitzaren mantenurako nahiz gizarte ororen funtzionamendurako. Abian jarri zenetik, 30.758 pertsonak parte hartu dute proiektuan.

INTERED EUSKAL HERRIA FUNDAZIOA

Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzako lana, InteRed Euskal Herria Fundaziotik sustatua, jolas kooperatiboak gizarte eraldatzeko tresna gisa hedatuz hasi zen. 1998an antolatu ziren jolas kooperatiboei buruzko lehen tailerrak, eta 2001n Jolas Kooperatiboen arloko Baliabide Zentroa sortu zen, tolerantzia, bakean, kooperazioan eta demokrazian oinarritutako gizarte eredu sustatzeko asmoz. InteRed Fundazioak 10 urtez baino gehiagoz gauzatu ditu prestakuntza eta aholkularitza prozesuak hainbat talderentzat, hala nola irakasleentzat, hezkuntza ez-formaleko hezitzaileentzat, familientzat eta baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden taldeekin lan egiten duten erakundeentzat.

Aldi berean, eta Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzako

¹ Ekimenari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu web orri hau: <http://redciudadaniaglobal.org/actua-con-cuidados/#.UW1FQ0pHWIs>

lanari batasuna ematearren, bi urte irauten duten sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainen formatua aukeratu zen. Formatu hori erabiliz, InteRed Fundazioak lau sentsibilizazio kanpaina gauzatu ditu 2004az geroztik:

- *“Educar a una mujer es educar a un pueblo/Emakume bat heztea, herri bat heztea da”* (2004-2006). Kanpaina horren bidez, nabarmendu egin nahi zen zer nolako garrantzia duen hezkuntzak Hegoaldeko herrialdeetako giza garapena sustatzeko mekanismo gisa, eta azpimarratu egin nahi zen, zehazki, emakumeek oinarritzko hezkuntza jasotzeak eta haiek profesionalki gaitzeak eragina duela garapen adierazleen hobekuntzan.
- *“Igualdad para el desarrollo: Si la mujer avanza el mundo también / Garapenerako berdintasuna: emakumeak aurrera egiten badu, munduak ere bai”* (2007-2009) Kanpaina horren xedea zen agerian uztea emakumeek hainbat arlotan gauzatutako lana, ahalegiak eta ekimenak lagungarriak direla munduaren garapenarentzat eta garapen globala lortzeko ezinbestekoa dela genero ekitatea.
- *“Educación Inclusiva, motor de desarrollo humano/Hezkuntza inklusiboa: giza garapenaren eragile”* (2009/2011) Kanpaina horrek helburutzat zuen hezkuntza inklusiboaren garapena sustatzea, herritarren konpromisoari esker gizarte justu eta zuzenagoa lortzeko estrategia gisa.

Azken kanpaina “Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” izan da. Lehen fasea 2012-2014 aldian gauzatu zen, eta bigarrena, berriz, 2014ko urtarritik 2017ko otsailera bitarte. Aipatu dugunez, kanpaina honen xedea da bestelako garapen eredu bat eraikitzen laguntzea, naturaren eta gizakion zaintza agerian utzi, aintzat hartu eta ardatzean ipiniko duen eredua, alegia.



Azken kanpaina hori, eta zehazki haren bigarren fasea, bat dator, halaber, InteRed Fundazioak bere lan filosofian eta bere jardunbide zein prozesuetan izan

duen bilakaerarekin. Ildo horretan, nabarmentzekoa da erakundeak bosgarren belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren erronka onartu duela, erreferentziatzen duena Herritartasun Globalaren teoria.

InteRed Fundazioan, gizarte hezkuntzazko prozesu etengabetzat jotzen dugu Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza. Prozesu horrek herritartasun global kritikoa eta arduratsua sustatzen du, pertsonalki zein kolektiboki konprometitua dagoena tokiko errealitatearen nahiz errealitate globalaren eraldaketarekin, helburutzat izanik mundu justu eta zuzenagoa eraikitzea, adeitsuagoa izango dena aniztasunarekin eta ingurumenarekin, eta gizaki guztioi aukera emango diguna askatasunez eta behar bezala gartzeko.

1.2. Justifikazioa, proiektuaren deskribapena eta haren historiarena

Patriarkatuak eta androzentrismoak ezaugarritzat dute errealtatea aurkako bikoteetan zatitzen dutela (kultura/natura, adimena/gorputza, arrazoimena/emozioa, jakintza zientifikoa/ jakintza tradizionala, zientzia/esperientzia, publikoa/pribatua, etab.) eta bikote horiei balio hierarkikoa ematen dietela, lehenengo osagaiak izanik baliotsuenak eta horiek maskulinitatearekin erlazionatuz. Hortaz, emakumeak beheragoko maila batean egongo lirateke, naturarekin, gorputzarekin, materiarekin, emozioekin, jakintza tradizionalarekin, esperientziarekin eta pribatua denarekin erlazionatuta. Hori abiapuntua izanik, ideologikoki justifikatuta gelditzen da natura eta emakumeak desberdinkeriak berregiten dituzten balio androzentriko batzuen mesedetan menderatzea eta ustiatzea. Gaur egungo sistema ekonomiko neoliberala patriarkatuan oinarrituta garatu eta egituratu da. Horrez gainera, egungo eredu ekonomikoak, finantza merkatuarenak, ikusezin bihurtzen du balio monetarioa ez duen oro, eta ukatu egiten ditu zaintza lanak gure bizitzen euskarri gisa. Errealitate hori kontuan hartuta jarri zen abian “Actúa con cuidados, transforma la realidad/ Zaintzak biziz, errealtatea eraldatu” kanpaina.

Historian zehar, emakumeak arduratu dira ugalketarekin eta gizakien nahiz bestelako izakien zaintzekin lotutako zeregin guztiez. Hala ere, zaintzak, bizitzaren harmonia, ugalketa eta mendekotasuna dutenen zainketa ez dira garrantzitsuak Kapitalarentzat, ez dutelako balio ekonomikorik sortzen. Transmittitzen ziren balioak aztertu ere egin gabe, balio handiagoa eman zaio sistema patriarkalak babesten zuen nortasun politiko eta publikoari, eta eredu hori koptatzera bultzatu dira emakumeak. Baina gizonek ez dituzte beren gain hartu historikoki emakumeei esleitu izan zaizkien rolak.

Era berean, pribatutasunarekin lotutako zereginak direnez, ez estatuak ezta enpresek ere ez zuten onartu edo ez dute onartu arlo horretan dagokien erantzukizuna. Alabaina, sistema ekonomiko kapitalista ugalketa sozialaz arduratzen diren emakumeen lan ordaindu gabeei esker mantentzen da.

Horiek horrela, kanpainaren lehenengo fasetik InteRed Fundazioak eko-feminismotik bultzatutako aldaketa proposamen bat egin du. Eko-feminismoaren arabera, lotura hertsia dago emakumeen mendekotasunaren eta naturaren sunsiketaren artean, eta arazo ekologikoak ez dira sortzen soilik giza espezieak naturari begira gauzatutako gehiegikeria antropozentrikoetatik. Egiaz, antropozentrismo hori androzentrismoa da, hau da, ikuspegi maskulinoak femeninoen gainetik nagusitzen diren eredu kultural bat, ikuspegi femeninoak mendekotzat jotzen dituen, alde batera uzten dituen eta ikusezin bihurtu ere egiten dituen. Naturaren esplotazioa eta emakumeen esplotazioa konektatu egiten dira, hortaz, errealtatearen gaineko ikuspegi baten bidez eta sistema patriarkalean oinarritzen eta justifikatzen diren jardunbide batzuen bidez.

Illo horretan, kanpainaren lehenengo fasean, InteRed Fundazioak sistema kapitalista eta patriarkala ezaugarritzat duen indarreko garapen ereduari buruz gogoeta egiteko espazioak sortu ditu, eta bestelako eredu bat sustatu du,

oinarritzat dituen zaintzaren etika eta horrek bakearen eraikuntzarekin, ingurumen jasangarritasunarekin, inklusio sozialarekin eta gizaki guztiek giza eskubideak baliatzeko aukerarekin duen lotura. Ikuspegi horrek apurtu egiten du Iparra-Hegoa muga, eta arazo globalen errealitatean kokatzen gaitu. Arazo global horiek erantzun globalak behar dituzte, eta egoeraz jabetuta dauden herritarrak, gizarteko eraldaketa txiki zein handietan eragin nahi dutenak, gizartearen ekintza antolatua proposatuz.

Kanpainaren lehenengo fasea InteRed Fundazioaren lan eremu diren autonomia erkidegoetan garatu da, eta horrek berekin ekarri du sarean lan egin behar izatea eta informazioa, ezagutza eta materialak trukitzea. Zehazki, zaintzaren etikako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak gauzatu dira irakasle eta hezitzaile izango direnekin (unibertsitateko ikasleak), hezkuntza ez-formalean diharduten pertsonekin (aisialdiko eta gizarte elkarteetako begiraleak) eta ikastetxeetako irakasle zein ikasleekin. Proiektuak 2.054² onuradun izan ditu, 79 taldetan banatuta: *(Ikusi 1. taula)*

1. Taula. “Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpainaren I. fasearen talde onuradunak.

Eremua	Talde onuraduna	Zenbat talde	Zenbat pertsona
Hezkuntza formala	Ikastetxe hauetako ikasleak: Ikasbide Ikastetxea, Muskiz BHI, Zurriola Ikastola, Ongarai BHI Ikastetxea, Almen DBH MCC, Gaztelupe Ikastola DLH, Santa Teresa Ikastola DLH, Mundaiz Ikastola DBH, Iturribide HHI eta EGAPE.	53	1.043
	Erakunde eta ikastetxe hauetako irakasleak eta hezitzaileak: Elgoibarko Izarra Euskera Elkartea eta Lekeitioko Eskola Publikoa.	3	78
	Jardunaldi hauetan parte hartu zuten unibertsitateko ikasleak: “Gizarte eraldaketarako erremintak partekatuz. Mexikotik Euskal Herrira. Genero eta ingurumen ikuspegitik metodologia alternatiboak”; Jardunaldiak “Unibertsitatea eta eraldaketa”; “Gizarte Hezkuntza”; HUHEZI -Mondragon Unibertsitatea.	9	300
Hezkuntza ez-formala	Elkarte nahiz aisialdi taldeetako langileak eta jardunaldi zein ekintza hauetan parte hartu zutenak: “Desde la autonomía de la palabra, pensamiento y sentimiento: mujeres mayas abriendo caminos” hitzaldia; Saretuz Topaketa, Donostiako Elkartasun Jardunaldia; Bilboko Elkartasun Topaketa; Arrasateko Gaztetxeko hitzaldia; Barakaldoko Azoka; Bilboko InteRed Batzordea, Bidezko Merkataritza Donostia; Amurrioko Azoka; Ikasbideko ikasle ohiak; Sareginez; “Mexikoko Feminizidioaren kontrako borroka esperientziak” solasaldia; “Compartiendo experiencias por los derechos de las mujeres en México” – InteRed Fundazioaren Elkartasun Jardunaldiak.	14	653

Iturria: geuk egina

² Kontsultatutako dokumentuetan, onuradun guztien artetik 464 kasutan bakarrik ageri dira sexuaren arabera bereizitako datuak. 464 pertsona horien % 79,05 emakumeak dira.

Kanpainaren lehen garapen fasean sortutako gogoetetatik abiatuta eta haren ebaluaziotik ikasitakoa aplikatuta, bigarren fasean, InteRed Euskal Herria Fundazioak ekintzarako jarraibideak eskaini nahi izan ditu, parte hartu duten pertsonetara egokitutako zenbait estrategiaren bidez. Zehazki, hauek izan dira bigarren fasearen osagaiak:

- Mobilizazio ekintzak ikastetxeetan: ekintza horien bidez, eraldaketarako eragile bilakatu nahi izan dira ikasleak, eta tokikoan esku hartuta aldaketa globala eragin dezaketela onartzea eta barneratzea lortu nahi izan da, baita errealitateari buruzko ikuspegi kritikoa izatea ere.
- Ikaskuntza kolektiborako eta esperientzia trukerako jardunaldiak: horien helburua izan da elikadura burujabetzan, zaintzetan, generoan eta erantzunkidetasunean diharduten elkarteek bat egin dezatela esperientziak trukatzeko espazio batean, ezagutzak, jardunbideak, teoriak eta ikaskuntzak partekatu ahal izateko.
- Materialen prestaketa: mobilizazio ekintzen proposamenak jasotzen dituen dokumentu bat sortu da ikastetxeetako irakasleentzat, eta prestakuntza dokumentu bat, berriz, aisialdiaren eremuko hezitzaileentzat; era berean, *Guía didáctica: actúa con cuidados/Zaintzak biziz gida didaktikoa* sortu da.
- Prestakuntzak: prestakuntzako hainbat ekintza gauzatu dira aisialdiko hezitzaileentzat, familientzat eta ikastetxeetako irakasle zein ikasleentzat.

Bigarren fasean, proiektuak 1.112 onuradun izan ditu guztira, 36 taldetan banatuak. Onuradun guztien % 49 emakumeak izan dira. *(Ikusi 2. Taula)*

Aipatu dugunez, dokumentu honen xedea da Lekeitioko Eskola Publikoko esperientzia sistematizatzea. Esperientzia hori irakasleentzako prestakuntzaren baitan kokatu behar da proiektuaren lehenengo fasean, eta ikasle zein irakasleentzako prestakuntzaren baitan, berriz, bigarren fasean.

2. Taula. “Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpainaren II. faseko talde onuradunak.

Eremua	Talde onuraduna	Zenbat talde	Zenbat pertsona
Educación formal	Ikastetxe hauetako ikasleak: Zurriola Ikastola, Mundaiz Ikastola; Lekeitioko Eskola Publikoa, Muskiz BHI eta Ikasbide Ikastetxea.	17	471 (%49 emakume)
	Mobilizazio ekintza hauek egin dituzten ikastetxeetako irakasleak eta ikasleak: HAMA (hezkuntzaren aldeko munduko ekintza astea) Bilbon eta Gasteizen, Elkartasun Jardunaldia eta Gipuzkoa Zutik.	6	258 (%45 emakume)
	Ikastetxe hauetako irakasleak: Lekeitioko Eskola Publikoa eta Ikeria Prestakuntza Bilbon eta Donostian	5	101 (%54 emakume)
Educación no formal e informal	Ikastetxe hauetako familiak: Familiaren aisialdirako “Jostaleku” Elkartea; “Axular Lizeoa Aiete”; “Familiekin Irekia” eta “ÁGAPE Ikastola”	4	92 (%67 emakume)
	Metodologiei (jolas kooperatiboak, teknika ludiko teatralak eta ludopedagogia) buruzko prestakuntza zikloetan parte hartu dutenak.	3	83 (%75 emakume)
	Truke jardunaldietako partaideak.	1	107 (%74 emakume)

Iturria: geuk egina

2.

Lekeitioko eskola publikoko esperientzia



2.1. Eskolaren aurkezpena

Gaur egun Lekeitioko Eskola Publikoa dena 1965ean sortu zen, urte hartan eraiki baitzuten lehenengo eraikina, zortzi eskola unitate hartzen zituen. Geroago, 70eko hamarkadan, beste hiru eraikinekin osatu zuten eskola, eta horiek dira gaur egun erabiltzen dituztenak.

Hasieran, sortu zenetik 80ko hamarkadara arte, aldaketa handiak gertatu ziren eskolan, eta “Eskola Nazional” izateari utzi zion, Euskal Eskola Publiko deritzona sortzen hasteko. Hona hemen aldi hura definitzen duten ezaugarri nagusiak:

- Euskara irakaskuntzako komunikazio hizkuntza gisa ezarri zen.
- Berrikuntza pedagogikoa izan zen.
- Eskola gizartea eraldatzeko tresna bilakatu zen. Euskara ezarri eta korrante pedagogiko berriak erabiltzen hastearekin batera, Lekeitioko Eskola Publikoa herritartasun berriaren eraikuntzan parte hartzen hasi zen, aintzat hartuta garai hartako herri ohiturak eta aldarrikapenak, euskalduntzea, doakotasuna eta kalitatea, besteak beste.

Lehenengo aldi horren atzetik bigarrena etorri zen, finkatze aldia, ia bi hamarkada iraun zuena, mende berriaren hasierara arte. Bigarren aldiaren ezaugarriak izan ziren euskarazko materialen sorrera, metodologia berritzaileen esperimentazioa eta, batik bat, curriculumaren berregituraketa.

Ezin dugu ahaztu 1990ean Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea edo LOGSE ezarri zutela eta horrek berekin ekarri zuela hezkuntza sistemaren berregituraketa, bai programarena, bai egiturarena. Urte batzuk geroago, 1993an, Euskal Eskola Publikoaren Legea promulgatu zuten, eta bertan jasota geratu ziren oraindik indarrean dauden lerro nagusiak.

Azkeneko aldiaren bereizgarri nagusia Ikas Komunitate bilakatzeko prozesutik eratorritako aldaketa handiak izan dira. Parte hartzea sustatzen duen eskola sortu da, eta bertan nabarmentzekoak dira haurren gelako biltzarrak, gelako ordezkariak osatzen duten bizikidetza foroa eta senideek, irakasleek zein ikasleek osatutako batzorde mistoak. Egitura horiek guztiak beharrezkoak dira erabaki garrantzitsuak komunitateko eragile guztien artean adostuta hartzeko.

Aipatzekoak dira, halaber, Hezkidetza Proiektua, 2013az geroztik abian dena, eta Hezkidetza Proiektu Integrala, eskolaren jardunaren oinarrietako bat dena 2014-2015 ikasturtetik.

Hezkidetza Proiektuari ELKARREKIN izeneko erantsi zaio, Bizikidetza Proiektu Integrala. Bi proiektuak elkarren osagarri dira, eta ikastetxeak BIZIKIDETZARI eta HARREMANEI begira abian duen plan orokorraren baitan daude.

Hezkidetza Proiektuaren ardatza neska eta mutilen arteko harremanak dira, eta ELKARREKIN proiektuak ikasleen eta hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harremanak lantzen ditu, modu zabalagoan. Helburutzat dute gatazkak ebazteko, erantzukizunak onartzeko, sen kritikoz jokatzeko eta ingurunea sormenez eraldatzeko beharrezkoak diren gaitasunak indartzea. Hiru eremu lantzen dituzte horretarako: Bizikidetza eta gatazken ebazpena, Hezkidetza eta sexu hezkuntza eta Adimen emozional, afektibo eta sentimentala. Hiru eremu horiek Lehen Hezkuntzako maila guztietan garatzen dira, astean hiru saio eginda.



Lekeitioko Eskola Publikoaren eraikina

Gaur egun, eskolak, institutuak eta haurreskolak osatzen dute udalerriko irakaskuntza publikoko sarea, eta bertan bilduta daude zazpiehun familia, 220 heldu (irakasleak eta bestelako profesionalak) eta 1.000 haur baino gehiago.

2.2. Proiektuaren diseinua eta InteRed Euskal Herria Fundazioaren eta Lekeitioko Eskola Publikoaren arteko harremanaren jatorria

Eskola Publikoaren arteko harremanaren jatorria *“Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu”* kanpainaren jatorria aurretik zaintzaren etikari buruz egindako beste ekimen bat izan zen. Ekimen hartan gogoeta sakona egin zen patriarkatuari eta kapitalismoari buruz, eta hausnartu zen bi egitura horiek elkar elikatzen dutela eta hainbat diskriminazio modu sortzen dituztela. Gogoeta horren emaitza gisa, zaintzei buruzko erakunde kanpaina antolatu zen estatu osoan.

Garrantzitsua da aipatzea InteRed Fundazioan erakunde kanpainak modu partizipatiboan antolatu ohi direla, boluntarioen, soldatapeko langileen eta hezkuntza zentroen iritzia aintzat hartuta erabakiak hartzean. Bestalde, erakundeak hezkuntzaren arloan duen eskarmentu handiari esker, urteen joanean ikastetxe sare bat osatu du estatuan, Red Transforma ³ izeneko.

Red Transforma sarearen helburua da ikastetxeetan Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH) zeharkako gai bilakatzea, hezkuntza komunitateari (zuzendaritza taldeak, irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasle ez diren langileak) eskainitako hainbat jardueraren bidez; hartara, ikastetxeetako bizitzan eragina izango duen ikuspegi orokor bilakatuko da.

Red Transforma sarea 2010ean jaio zen, xedetzat zuela gizarte hezkuntzazko prozesu etengabeak bultzatzea, herritartasun global kritikoa eta arduratsua sustatuko duten prozesuak, pertsonalki eta kolektiboki konprometituta daudenak tokiko errealitatearen nahiz errealitate globalaren eraldaketarekin, helburutzat izanik mundu justu eta zuzenagoa eraikitzea, adeitsuagoa izango dena aniztasunarekin eta ingurumenarekin, eta gizaki guztioi aukera emango diguna askatasunez eta behar bezala garatzeko.

Illo horretan, aipatzekoa da *“Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu”* kanpaina modu partizipatiboan gauzatu zela, Red Transforma sarean parte hartzen duten ikastetxeei galdetuta, haren egokitasuna aztertzeke.

Ondoren, Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak ematen dituen Garapenerako Hezkuntza Proiektuetarako Laguntzen deialdira aurkeztu ziren kanpainaren lehen fasea nahiz bigarrena, eta, onespena jaso ostean, Euskadiko zenbait ikastetxerekin harremanetan jarri ginen, hala nola Lekeitioko Eskola Publikoarekin, ekimenean parte hartzera animatzeko.

Zaintzei buruzko lana hainbat ikuspegitatik gara daiteke, eta gai bat baino gehiago landuz; horregatik, InteRed Fundaziotik lehentasuna eman zitzaion esku hartzeak ikastetxeen beharretara egokitzeari, hau da, haien eskakizunei

³ Red Transforma sareari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, web orri hau kontsulta daiteke: <http://redciudadaniaglobal.org/>

erantzuteko egokienak ziren gaiak lantzeari. Lekeitioko Eskola Publikoaren kasuan, hasierako bileretan, hezkidetzako arduradunak azaldu zigun ikastetxean bullying kasuak zituztela eta erantzun egin nahi zietela egoera haiei.

Bestalde, hezkidetzako arduradunak azaldu zuen InteRed Euskal Herria Fundazioak proposatutako ekimena bat zetorrela ikastetxean abian jartzen ari ziren hezkidetzak ikuspegiarekin, zeina islatuta ageri zen Hezkidetzak Planean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustatutako politikaren esparruan presatutako plana da, eta haren baitako jardute lerroetako bat talde kohesioa lantzea da, erasoak saihesteko eta ikasleen artean eskola komunitateko kide izatearen sentimendua sendotzeko:

“Proiektuaren barruan, landu beharreko gaietako bat taldearen kohesioa zen, erasoak saihestu ahal izateko. Konturatu ginen biktimak beti izaten direla taldetik kanpo dauden haurrak eta taldearen kohesioa garrantzitsua zela, eta gai hori InteRed Fundazioarekin lantzen hasi ginen. Aurten, gure proiektu osoaren ardatza harremanak, kohesioa eta emozioak dira”. (Lekeitioko Eskola Publikoko hezkidetzako arduraduna)

2.3. Zerk bultzatu zuen ikastetxea “Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpainan parte hartzera

Lekeitioko Eskola Publikoko Hezkidetzako Proiektuak helburu nagusitzat du hezkuntza komunitate guztia genero berdintasunaren gainean sentsibilizatzea, arreta berezia jarritz ikasleen arteko harremanak lantzeki.

Aipatuenez, Eskolan zenbait ikasle bakartuta zeudela eta kasu batzuetan erasoak jasan zituztela antzeman izanek eragin zuen taldearen kohesioaren gainean lanean hasia. Lekeitio herri txikia denaz, eskolako egoera horiek kalean eta sozializaziorako beste espazio batzuetan ere ikus daitezke:

“Laugarren edo bosgarren mailan, neskatxak kalean elkarri helduta ibiltzen hasten dira, eta beti izaten da baten bat taldearen atzetik edo aurretik joaten dena. Patioan jardueraren bat egiten dugun bakoitzean, beti dago bakarrik gelditzen den norbait, eta beti berdinak izaten dira”. (Lekeitioko Eskola Publikoko hezkidetzako arduraduna)

Gainera, seigarren mailako ikasleen kasuan, haietako batzuek jasaten duten bakartzea ere nabariagoa izaten da institutura iristen direnean:

“Neska-mutil batzuk beti etxean geratzen dira, ez baitie inork deitzen; gure helburua da taldea batera dadin lortzea. Seigarren maila da neska-mutilek gurekin egiten duten azken ikasturtea, eta gero institutura joaten dira. Eta urtero-urtero esaten digute institututik: “Arazo handia dago neska edo mutil honekin; orain arte ez zarete ohartu?”. Hemen bazi-rudien dena ongi zihoala, baina institutura iritsi eta askatasun handiagoa dutenean, jende asko bakarrik geratzen da. Zergatik? Bada ongi egiten ari ez garen zerbait, gu baikara oinarria...”. (Lekeitioko Eskola Publikoko hezkidetzako arduraduna)

Arrazoi horiek tarteko, ikastetxeak gogo onez onartu zuen InteRed Euskal Herria Fundazioaren proposamena, hots, genero berdintasuna lantzea bizitzaren jasagarritasunaren ikuspegi feminista aintzat hartuta eta zaintzari merezi duen balioa emanez giza bizitza mantentzeko oinarritzko ardatz gisa. Horretarako, metodologia ludikoa (ludopedagogia) erabiliko zen; metodologia horrek lehentasuna ematen dio jolasarekin lotutako lanari, eta, harremanak berrezartzeaz eta sentimenduak lantzeaz gain, taldearen kohesioa lortu nahi duen eraldaketa du xedetzat.

Nolanahi ere, ikastetxetik azaldu dute proposamen horrek hasieran zalantzak eragin zituela irakasle batzuen artean, ez baitzuten lotura garbia ikusten genero berdintasunaren sustapenaren eta ludopedagogia nahiz jolas kooperatiboen artean. Zalantza hori argituta geratu zen, azaldu baitzitzaizen jolas kooperatiboek eta taldearen kohesioa lantzeko erabiltzen diren teknikak helburutzat dutela ikasgelan sortzen diren gatazkak, batzuetan bakartze egoerak eragin ditzaketanak, ebatzea. Horrez gainera, gatazken atzean genero desberdineriekin zerikusia duten arrazoiak ere izan daitezke, baita ikasleek beren buruari eta gorputzari buruz duten iritziarekin zerikusia dutenak ere:

“InteRedekoa proposatu zigutenean, zenbait irakasle zalantzak agertu zituzten: “Non

dago generoaren kontua? Jolas kooperatiboak lantzen ari gara". Irakasleekin prestakuntza saioak egin genituenean ere izan genituen eztabaidak hezkidetzako proiektuak jarraitu beharreko norabideari buruz: nesken eta mutilen kontuak bakarrik landu behar ditugu, edo gatazkekin zerikusia duten alderdiak landu behar ditugu? Izan ere, gatazka horien oinarrian genero desberdinkeriak egoten dira sarri, edo bere buruarekin edo gorputzarekin gustura ez dagoen norbait...". (Lekeitioko Eskola Publikoko hezkidetzako arduraduna)




2.4. Lekeitioko Eskola Publikoan egindako esku hartzearen datu kuantitatiboak

Aipatu denez, kanpaina hau bi fasetan garatu da Lekeitioko Eskola Publikoan. Lehenengo fasean (2012-2014), 2 prestakuntza saio egin ziren: saio bat parte hartu nahi zuten irakasle guztientzat, eta beste bat jangelako zaintzaileentzat. Bigarren fasean, ikasleekin lan egin zen (12 saio) bi ikasturtez (2014-2017), eta aldi berean bi prestakuntza saio egin ziren irakasleekin, bat Lehen Hezkuntza-ko lehenengo zikloko irakasleekin, eta beste bat bigarren ziklokoekin.

Irakasleentzako prestakuntzari dagokionez, guztira 76 onuradun izan dira, gehienak emakumeak (% 87).


1. Grafikoa. Irakasleentzako prestakuntzaren onuradunak (sexuaren arabera)



Iturria: geuk egina

Hurrengo grafikoan, egindako lau prestakuntza saioetan zenbat pertsonak parte hartu duten ageri da, sexuaren arabera bereizita:


2. grafikoa. Prestakuntza saioetan parte hartu dutenen kopurua (sexuaren arabera eta saioa)



Iturria: geuk egina

Bestalde, **ikasleentzako esku hartzea** 6. mailako 3 geletan gauzatu da bi ikasturtez (guztira 6 talde), eta urtean 12 saio egin dira talde bakoitzarekin (guztira 72 saio). 148 ikaslek parte hartu dute, horien % 47 emakumeak.


3. grafikoa. Esku hartzeetan parte hartu duten ikasleak (sexuaren arabera)



Iturria: geuk egina

Hurrengo grafikoa, ikasturte bakoitzean zenbat ikaslek parte hartu duten ikus daiteke, sexuaren arabera bereizita:


4. grafikoa. Ikasturte bakoitzean parte hartu duten ikasleen kopurua, sexuaren arabera bereizita



Iturria: geuk egina

3.

Esku hartzearen ikuspegi teorikoa eta metodologikoa



3.1. Ikuspegi teorikoa. Ludopedagogia, jolasaren ahalmena

“Actúa con cuidados, transforma la realidad/Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpainaren baitan ikasleekin zein irakasleekin egindako lanak ludopedagogia du oinarri. InteRed Euskal Herria Fundazioan, nork bere burua eta ingurunea ulertzeko modutzat hartzen dugu ludopedagogia, baita pertsona bakoitzak ingurune horretan eragiteko duen modutzat ere.

Ludopedagogiaren jatorria herri hezkuntza da, eta helburutzat du ezagutza modu kolektiboan eraikitzea, irakasle/ikasle rolak gaindituz eta bestelako lotura bat sortuz, galdera, jakin-min, ikerketa eta esperimentazio kolektibo eta komunitariorako espazioak eskainiko dituen.

Ikuspegi teoriko horrek erronka bat dakar, hots, baldintza subjektibo eta objektibo onenei bidea ematea, gaitasun eta konpetentzia indibidualak zein kolektiboak erabat garatzeko. Horrez gainera, jolasteko gaitasuna leheneratzen, berriz aintzat hartzen eta birsortzen saiatzen da, errealitateaz (berriz) jabetzeko egin beharreko bidetzat hartzen baitu jolasa.

InteRed Fundazioaren abiapuntuko hipotesia da gizakiok errealitateari buruzko ikuspegi partziala dugula hainbat arrazoi direla tarteko: testuinguru (sozial, historiko, kultural, ekonomiko) jakin batean antzematen dugulako; hura ezagutzeko erabiltzen ditugun mekanismoak eta zentzuak osatugabeak direlako (izaki dimentsioaniztunak izanik, gure aparatu kognitibo arrazionala bakarrik erabiltzen dugu ikasteko, muga ugari baditu ere); errealitatea itxuraldatu egiten dugula interpretatzean. Hortaz, zenbat eta gehiago eta hobeto ezagutu errealitatea, estrategia nahiz ekintza are eraginkorragoak eta asertiboagoak abiaraziko ditugu hura aldatzeko.

Illo horretan, jolasaren bidez aldi berean eta modu sinergikoan jartzen dira martxan era askotako gaitasunak, egoera ludikoari erantzuna emateko, eta jolasak gaitasun horiek aurkitzeko eta indartzeko aukera ematen du.

Jolasean dena da posible, eta jolasaren balioa horretan datza, hain zuzen ere; hau da, jolasa baliotsua da aukera ematen duelako errealitatea zalantzan jartzeko, mugak apurtzeko, hura berregiteko, suntsitzeko eta eraikitzeko, beste batzuekin izan, egon eta egiteko modu pertsonal eta kolektibo berriak probatzeko eta, ondorioz, ekintza eraldatzailearen etorkizun sinbolikoa eta erreala irekitzen lagunduko duten “subjektibotasun errebeldeen” sorrera sustatzeko.

Jolasak, beraz, errealitatea ikertzeko eta ulertzeko aukera eskaintzen du. Jolasa jakintzarako bitarteko gisa erabiliz, errealitatearen jabe bihurtzen gara, eta gure historiaren protagonistatzat ahalduntzen gara. Horrexegatik, hain zuzen, ludopedagogiaren apustu politikoa eta pedagogikoa hau da: ezagutzeko jolastu; ezagutu eta eraldatu.



Tailerretan parte hartu zuten Lekeitioko Eskola Publikoko ikasleak

Mariano Algavak azaltzen duenez, jolasaren eginkizun garrantzitsu horrek barne hartzen du honako hau:

“Zalantzari eustea, gogaikarri eta sortzaile; gizakien osogabetasun berezkoari eustea, hura baita bilaketaren eta historia eraikitzen duen ekintzaren motorra. Horregatik babes-ten dugu galderaren pedagogia, eta ez erantzunaren edo jakintza absolutuaren pedago-gia. Hortik dator jakintzaren eraikuntza kolektiboa, eta ez kopia kritikarik gabea, esanekoa eta obedienteak”.

Hortik dator baieztapen hau: jolastea “ez da probetxugarria ezertarako”, bizit-zako gauza garrantzitsuen antzera: landareei hitz egitea, dutxan abestea, izar iheskorrei eskerrak ematea, hortzei agur esatea edo maitemintzea. Bizitzan beharrezkoak izan arren gure lehentasunetan eta eguneroko funtzioetan iku-sezin bihurtuta dauden jarduerak, hala nola zaintza lanak. Hortaz, ludopeda-gogia hauxe da:

“Kontzeptu eta definizioen bidez azaltzen zail den tresna konplexu bat; espazio-denbo-ra bat, non saiitzen garen gauzak egiten eta gertarazten, gauza horiek lagundu egingo baitigute gure ikuspegi ludikoan sakondu eta aurre-ezarritakotik harago ikusten, hainbat aukeraren iturriak azalduz eta amesten dugun bizimodu onaren bertsioak zehaztuz une gutxi-asko laburretan.”

Ludopedagogiaren ikuspegi horrez gainera, InteRed Euskal Herria Fundazio-ari garrantzitsua iruditzen zaio jolas kooperatiboak erabiltzea guztien artean enpatia sentitzeko, ulertzeko eta lankidetzan aritzeko prozesuetan laguntzeko tresna gisa. Gure harremanak justiziatik eta berdintasunetik abiatuta eralda-tzea ahalbidetzen diguten tresnak dira.

4 Mariano Algava (2006): Jugar y Jugarse Sobre la dimensión lúdica de la Educación Popular. Buenos Aires: Ediciones América libre, 2006. Eskuragarri hemen: <https://loslibroslibres.files.wordpress.com/2010/08/jugar-y-jugarse-2da-ed.pdf>

5 Melissa Zunino (2014): Ludopedagogía: un recorrido de idas y vueltas Apuntes que pretende invitar a continuar las búsquedas. Mimeográfico.

Jolas kooperatiboen bidez kultura mota berria lortu nahi da. Kultura horretan, garaileak ez zaizkie gailentzen garaituei, eta pertsona oro gainerakoez arduratzen da, talde osoaren mesedetan; partaideak saiatzen dira ez inor baztertzen eta ez inor umiliatzen; ongi pasatu nahi dute, zehaztutako helburua ez lortzearen mehatxurik gabe, eta elkarrenganako estimua nagusi den giroa sortu nahi dute, non bestea ez den hartzen lehiakidetzat, jolaskidetzat baizik. Ondorioz, jolas kooperatiboek diskriminaziorik eza sustatzen dute, eta hainbat kultura eta ohituratako haurrak elkarrekin ikasi eta goza dezaten ahalbidetzen dute.

Hortaz, jolas kooperatiboak jolas sinpleak dira, alde batera uzten dituztenak hezkuntza eskemetan sakonki errotuta dauden jardunbide indibidualistak eta lehiakorrak, eta desberdintasun sakona ezartzen dute norgehiagoka, bazterketa, zigorra, saria eta kontsumoa lehenesten dituzten ereduakiko.

Jolas kooperatiboez gozatzeko, gutxienez beste pertsona bat behar da, harekin helburu bat partekatzeko edo erronka bat gainditzeko. Jolas kooperatiboak inklusiboak dira; beraz, elkarrekin jolasean ematen duten denbora tartean, partaideak elkar aberastuko dira.

Une honetan, aipatu beharra dago kooperazioa edo lankidetzaren prozesu bat dela eta horretara iristeko beharrezkoa dela beste pertsona batzuekin beste jolas batzuk esperimentatu izana, lankidetzarako prestatuko gaituzten jolasak, alegia. Ez banaiz fio ondoan dudan pertsonaz, begiak itxita ditudanean zuzenduko nauden edo neure burua erortzen uzten ditudanean helduko naue-



Tailerretan parte hartu zuten Lekeitioko Eskola Publikoko ikasleak

naz; taldeko pertsona bakoitzari ez badiot ematen merezi duen balioa eta nire proiektzioak eta iritziak pertsona horiei gainezartzen badizkiet, lankidetzaz ezinezkoa izango da. Hortaz, modu kooperatiboan jolastu ahal izango gara baldin eta arauak irakurri/entzun gabe bihotzak agintzen badigu lankidetzan jarduteko, laguntzeko eta banakotasuna nahiz norgehiagoka ez diren beste aukera batzuk bilatzeko. Beste pertsona batzuekin gozatzeko jolasaren errealitateaz.

Beraz, kooperazioaz gozatzen ikasi egiten da, helduak izanik eta haurtzaroa ahaztuta jolasa berriz ikasten den antzera. Beldurrak eta lotsak gainditzen ikasten da, jolasa adierazpen eremu bat baita, non bakoitzak bere burua agertzen duen, beretzat eta gainerakoentzat. Ildo horretan, talde bati proposamenak egiteko, garrantzitsua da hezitzaileek argi izatea zer unetan, ibilbidearen zer tokitan eta maparen zer puntutan dagoen talde hori.




Tailerretan parte hartu zuten Lekeitioko Eskola Publikoko ikasleak

3.2. Metodologia

3.2.1. IKASLEEKIN ESKU HARTZEN


Jolasa eraldaketarako tresna bilakatzen duten gakoetako bat esperimentazioan oinarritutako metodologia bera da. Ildo horretan, komeni da nabarmentzea lanerako ikuspegi sozio-afektiboa erabiltzen dela, zeinak alderdi afektiboa eta bizipenezkoa sustatzeaz gain, ahalbidetzen duen pertsonak bere osotasunean parte hartzea hezkuntza prozesuan, gorputza, adimena eta harremanak inplikatuta.

Ikaskuntza prozesuak hiru une ditu:



- SENTITZEA, norbere azalean esperimentatzea.
- PENTSATZEA-GOGOETA EGITEA jolasean sentitu eta esperimentatutakoari buruz. Hori adieraztea eta taldearekin partekatzea. Ikaskuntzak ateratzea. Jolasean agertu diren gatazka txikien eta emozioen egunerokotasuna aprobetxatzea, gure eguneroko bizitzarekin eta munduarekin erlazionatzeko.
- ESKU HARTZEA, bizikidetza demokratikoa lortzeko taldearen barruan eta, hedapenez, baita gizartean ere; hau da, geure burua aldaketarako eragile indibidual nahiz kolektibo gisa ahalduatzeko.

Aipatu denez, taldearen kohesioa eta kideen arteko kooperazioa ez dira lortzen elkarren artean loturarik ez duten saio bakarretan; aitzitik, prozesu baten bidez lortzen dira, eta prozesu horretan bestelako ahalmenak eta balioak lantzen dira aldez aurretik. Hona hemen jolasen sailkapen bat, kooperazioa erdiesteko izan behar duten hurrenkeraren arabera:



• **AURKEZPEN JOLASAK:**

Oso jolas errazak dira, eta hasierako hurbilketa eta harremana ahalbidetzen dute. Partaideek ez badute elkar ezagutzen, modu dinamiko, horizontal eta lasaian lan egingo duen talde baten oinarriak sortu behar dira.

• **EZAGUTZA JOLASAK:**

Jolas mota hauei esker, pertsona batek modu jatorragoan eman dezake ezagutzera bere burua, baita beste pertsona bat ezagutu ere, eta, era berean, harremanetan jar daiteke barnean duen haurrarekin. Hitzezko edukia duen informazioa eman ordez hitzekoa ez den edukia duen informazioa ematen duten jolasak dira.

• **BAIEZTAPEN JOLASAK:**

Jolas hauetan, lehentasunezkoa da partaideak pertsona gisa eta taldea talde gisa baieztatzea. Segurtasun indibidualak oinarritzat dituen mekanismoak erabiltzen dituzte, bai barnekoak (auto-kontzeptua, gaitasun indibidualak, etab.), bai kanpoko presioekin lotutakoak (taldeko rola, eskakizun sozialak, etab.), eta, norbere trebeziez eta mugez jabetzen laguntzeaz gain, taldeko pertsona guztien onespena sustatzen dute.

• **KONFIANTZA JOLASAK:**

Konfiantza eraikitzeko, beharrezkoa da aldeko giroa sortzea, non ezagutzak eta baieztapenak bide ematen dioten erantzunkidetasun sentimenduari. Partaide bakoitzak gainerakoekin lortutako harremanek eta taldeak talde gisa lortutakoek taxutuko dituzte konfiantza horren maila edo ñabardurak. Talde barruan konfiantza eraikitzea garrantzitsua da, bai elkartasunezko jokabideak sustatzeko, bai elkarrekin lan egiteko prestatzeko.

• **KOMUNIKAZIO JOLASAK:**

Prozesuaren baitan dago ahozko komunikazioa garatzea, izan beharrak edo/eta sentimenduak adierazteko, izan modu aktiboan entzuteko. Entzutea ez da ulertzea bakarrik, baizik eta irekita egotea gainerakoek beharrei eta konpromisoari. Hitzekoa ez den komunikaziorako bideak garatzeak berekin dakar pertsonarteko harremanak sustatzeko eta taldea indartzeko esperientzia zenbatezinen aberastasuna. Jolasak espazio berri bat

eskainiko du, beste pertsonari sentimenduak adierazteko bideekin eta taldeko harremanarekin. Gainera, jolasek komunikazio estereotipoak apurtzen dituzte, eta harreman hurbilagoak eta irekiagoak mesedetzen dituzte.

- **JOLAS KOOPERATIBOAK:**

Harreman lehiakorrek gaingintzeko prozesuko beste urrats bat da. Taldean lan egiteak emaitzei begira aukerak eta abantailak dituela ikusteaz gain, taldea ohartuko da horrela jardutea bizi esperientzia bat izan daitekeela eta partekatze gaitasuna gara dezakeela. Zenbait jolas kooperatibotan, gorputza bera erabiltzen da helburu komun bat lortzeko, eta badira, halaber, mahai jolas kooperatiboak. Mota batekoak edo bestekoak izan, jolas horiek oinarritzko hiru ezaugarri dituzte: partaideek helburu komun bat dute; elkarri lagun diezaiekete, eta guztiek batera irabazi edo galtzen dute.

Ikasleekin eta irakasleekin esku hartu duen kanpaina arduradunari egindako elkarrizketatik ondorioztatu daiteke taldeari ematen zaiola lehentasuna eta proposatutako jarduerak hartzaileen beharrei erantzuten dietela. Hala bada, lehentxeago deskribatu diren etapak aldatu egin daitezke, egoerak hala eskatuz gero:

“Nik badakit urtean 12 saio ditudala, eta niretzat prozesu bat da. Hainbat etapa daude. Hasteko, elkar ezagutzen dugu; komunikazioa, enpatia eta harremanak lantzen ditugu, eta amaieran lantzen dugu kooperazioa. Logika hori ezarrita badago ere, ez dut ibilbide zehatzik. Talde bakoitzak bere ibilbidea egingo du beti. Hortaz, nahiz eta oso argi izan nola egin behar dudana, talde bakoitzean alderdi bat beste bat baino gehiago lantzen dut, antzematen ditudan beharren arabera. Oso pertsonalizatua da”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Tailer hauen funtsezko alderdi bat lau ikaslek osatutako **“zaintzaile talde”** bat eratzen dela da. Talde horren zeregina da gainerako kideak zaintzea, eta ikasleek zein bideratzaileak saioetan bete beharko dituzten portaera arauak erabakitzea. Zaintzeaz arduratzen den talde hori ezinbesteko tresna da ikasleak ohar daitezen zer nolako garrantzia duten zaintzek euren eguneroko bizitzan eta onar dezaten zaintzek lehentasunezko balioa dutela giza harremanetan. Horrez gainera, erabakietan parte hartze handiagoa izatea ahalbidetzen du:

“Hirugarren saioan jada badugu zaintzaile taldea, eta, zerbait gertatuz gero, nigan josten dute, baina nik esaten diet ez naizela zaintzaile taldeko kidea, dinamizatzailea izan arren; ni ez naiz irakaslea, bideratzailea baizik. Zaintzaileen taldea lau pertsonak osatzen dute, eta saio bakoitzean aldatu egiten dira kideak, helburua ikasle guztiek talde horretan parte hartzea baita; denek jakin behar dute gainerakoak zaintzeko gai direla. Hirugarren saiorako, gainera, ezarrita ditugu saioetako portaera arauak, guztion artean adostuak. Bizikidetzara arau horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak ere ezarri dituzte zaintzaileek, eta orduantxe konturatzen dira zein den zaintzaile rola”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea).

Hasierako saioetatik nabarmendu beharreko beste alderdi batek zerikusia du ezagutza fasearekin. Bideratzaileak azaldu duenez, partaideek elkar ezagutzen duten talde batekin jardunez gero, banakako eta taldeko identitate berria sortzen laguntzen duten dinamika batzuk egiten ditu. Horiei esker, partaide bakoitzak ahaztu egiten du bere identitatea, eta nortasun berriarekin esperimentatzen du, zeinak aukera ematen dion, gainera, beste modu batean esperimentatu eta bere burua ezagutzeko:

“Talde batean sartzen naizenean, haiek elkar ezagutzen dute, baina ni ez naute ezagutzen; nire egoera zailagoa da, nik ez baitut inor ezagutzen. Hortaz, banakako eta taldeko beste identitate bat sortzen dut, haiek ere ezagutzen ez dutena. Hortik abiatuta, Laura izan beharrean, Francisco zara, Cáceresekoa. Modu horretan, berriz elkar ezagut dezakegu eta nor garen ahaztu dezakegu...”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Beraz, esku hartzeen xedea zera da, jolasaren bidez errealitatea eraldatzea eta esanahiak zein esperientziak berreraikitzea:

“InteRed Fundazioaren bereizgarrietako bat da jolasa eraldaketarako tresna gisa erabiltzen dugula. Sistema kapitalistari edo desberdinkeriei buruz hitz egin diezazuket, baina jolasa erabiltzen dut, pertsona horiek zerbait senti dezaten, euren rola alde batera uzteko eta guztien artean zerbait berria eraikitzeke aukera izan dezaten. Horrek desberdintzen gaitu”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Planteamendu horretan, jolasa ez da eraldaketa lortzeko bitarteko hutsa; jolasa bera helburu bilakatzen da:

“Jolasa ez da zerbait lortzeko tresna bat, lortu nahi dudana baizik. Han eta jolasaren bidez bakarrik jaiotzen den errealitate hori lortu nahi dut. Hori da helburua. Saioak hastean, nire helburua ez da partaideek kontzepturen bat ikastea; nire helburua da haiengandik jaiotzea munduan egoteko bestelako modu hau”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

3.2.1.1. IKASLEEKIN EGINDAKO SAIO BATEN ADIBIDEA

Jarraian, adibide gisa, ikasleekin egindako lan saio bat deskribatuko dugu, helburutzat izan duena komunikazio dinamikak martxan jartzea, arreta berezia eskainiz entzuteari. Saio espezifiko hau 3.a edo 4.a da, eta talde jakin baten barruan du zentzua, une jakin batean.

Lurrean eseriko gara, zirkuluan. Hasteko, saioko zaintzaileak aurkeztuko ditugu.

Aurreko saioan egindakoa gogoratuko dugu: konfiantza dinamikak landu genituen. Ez ditugu ahaztuko hemendik aurrera errespetatu beharko ditugun portaera arau berriak. Zaintzaileen taldeak taldea eta espazioa zaintzeko dinamika berria aurkeztuko du. Zaintzen SEMAFOROA erabiltzea erabaki zuten aurreko saioan. Zer kolore betetzen diren, ondorioak desberdinak izango dira.

Hurrengo dinamikako materiala banatuko dugu (A3 papera eta errotuladore bat), eta ikasle bakoitzak orratzik gabeko ordulari analogiko bat marraz dezala eskatuko dugu; nahi eta sentitzen duten moduan dekora dezatela.

Oinez hasiko dira. Musika etetean hurbilen duten pertsonarekin HITZORDUA izango dute adierazitako orduan. Orratzez ordua adieraz, eta pertsona horren izena idatziko dute. Beste hiru aldiz egingo dute dinamika, beste hiru hitzordu zehazteko. Guztira lau izango dituzte.



Ikasle bat bere ordularia marrazten

Ondoren, ordu bakoitzerako adierazitako ekintza egin beharko dute. Lehenengo astiro egingo dute, ekintza ulertzeko, eta ondoren bizkorrago arituko dira.

- 9:40. Berandu goaz lanera. Gure eskuin oina gure hitzordu-kidearen ezker oinarekin elkartuko dugu, eta espazioari bi bira eman beharko dizkiogu, ahalik eta azkarren.
- 12:00. Orgatilarena egingo dugu. Beste bi bira egingo ditugu, tartean zeregina aldatuta.
- 14:20. Bazkaria lagunekin.
- 15:30. Masajea bikoteka.

Norberak bere ordularia hartu, eta gutun-azalean sartuko du (erregistroa).

Afari erromantikoko bikoteak mantenduta, bi talde egingo ditugu (batzuk espazioaren bazter batera joango dira, eta gainerakoak beste bazterrera). Materiala banatuko dugu (zapiak), baita gure ANIMALIA BIKOTEAK ere.



Egokitu zaien animaliari erreparatuko diote, eta zer soinu egiten duen pentsatuko dute. Zapiak jantziko dituzte, eta tokiz aldatuko ditugu, taldea nahasteko. Begiak itxita, bikoteko bi kideak ibiltzen hasiko dira, eta bikotekidea bilatuko dute, soinuari erreparatuta. Elkar aurkitzen dutenean, zapia erantziko dute, isilik, bikote direla egiaztatuko dute eta bazter batean jarriko dira, behatzeko. Ez dugu inor behartuko jolastera; behatzea ere jolasean egotea da.

Zaintzaileek saio berrirako zaintzaileak aukeratu eta puntuak ematen dituzten bitartean, gainerakoek pertsonak isilik geratu arte ZENBATZEKO dinamika labur bat egingo dugu.

Gertatutakoari eta sentitu dugunari buruzko bateratze lana egingo dugu. SENTIPENTSATZAILEA.

SENTIPENTSATZAILE

Egia esaten duen hizkuntza hizkuntza sentipentsatzailea da. Gai dena sentituz pentsatzeko eta pentsatuz sentitzeko.


Bakarka jasoko dugu gure Bizitza Bilduman (erregistroa) eta posterrean, edo taldeka.

BEHATUZ PARTE HARTZEA

Ikasgelan, tailerraren bideratzailea eta ikasleak bildu dira (21 pertsona, horietatik 11 neskak). Horiez gainera, behatzaile gisa parte hartu dute taldearen tutoreak, irakasle batek eta hezkidetzako arduradunak.

Tailerraren hasieran, ikasleak bikoteka banatuta egon dira, eta, lurrean etzanda, masajeak eman dizkiote elkarri; masajea jasotzen zuen ikasleak begiak estalita zituen. Hasierako une horietan isiltasuna izan da nagusi gelan, barre ahulen artean.

Ikasleek beren kabuz erabaki dute norekin osatu bikotea; ondorioz, bikoteak sexu berekoak izan dira. Horri buruz hitz egin dugu hezkidetzako arduradunarekin, eta ondorioztatu dugu jarduera motagatik eta duten adinagatik (11 urte) erabaki dutela bikoteak horrela osatzea: ikasleak euren nortasuna eta gorputza ezagutzeko eta onartzeko prozesuan murgilduta daude, eta horregatik haientzat errazagoa da horrelako jarduerak sexu bereko ikaskideekin egitea.



Semaforoa

Masajeen ondotik, elkar besarkatzeko eskatu diegu. Guztiek parte hartu dute, nahiz eta baten bat deseroso sentitu jardueraren hurbiltasun fisikoagatik.

Ondoren, taldea zirkuluan jarri da, eta zaintzaileen taldeko kide batek aurreko saioetan adostutako bizikidetzara arauak gogorarazi ditu. Gero, semaforoaren ideia zehaztu da, aurreko saioan agertu zena.

Jarraian, hurrengo jarduerari ekin zaie, zehazki ordulariaren jarduerari.

Jarduera honetan, konturatu gara neska batek eta mutil batek zailtasunak dituztela jolaserako bikotekidea aurkitzeko. Bideratzaileak oso modu maiteko-rean hartu ditu bi ikasle horiek, eta ez ditu behartu jarduera egitera; hortaz, bi pertsona horiek ez dute parte hartu zenbait unetan.

Nolanahi ere, bi une zehatzetan neska bat eta mutil bat bikotekiderik gabe geratu diren bi pertsona horiei hurbildu zaizkie, eta jolastera animatu dituzte. Hasieran bakarrik gelditutako mutilak taldean sartzea lortu du azkenean, eta gainerako jolasak egin ditu. Neskak, ordea, jarduera batean bakarrik parte hartu du, ikasgelan haren lagun min bat sartu eta taldearekin bat egiten lagundu dion arte.

Tailerrean zehar, bi haurrek min hartu dute. Bi aldietan, taldeak jolasa etetea eta bi pertsona horiei behar zuten arreta eskaintzea erabaki du. Barkamena eskatu diete, eta jolasari ekin diote berriro.

Ez dugu tailer osoa egin, aurreikusitako jardueretako batzuk bakarrik baizik. Amaitzean, taldekideek agur esan diote elkarri, eta bakoitza bere gelara itzuli da, zaintzaileen taldea izan ezik; bertan geratu dira, hurrengo saiorako bizikidetza arauak elkarrekin eztabaidatzeko. Behin ados jarrita, zaintzaileen taldeko kideek adostutakoa sinatu dute, eta agur esan diote elkarri



*Zaintzaileen taldea,
bizikidetza arau batzuk
adosten*

3.2.2. IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA

Proiektuaren lehenengo eta bigarren faseetan irakasleei eskainitako prestakuntzaren edukiak aipatzen hasi aurretik, alderdi bat nabarmendu beharra dago. Hasieran gogoetarako eta azterketarako tarte bat izan badute ere, irakasleekin egindako esku hartzeetan erabilitako metodologia berbera erabili da prestakuntza horietan.

Hau da, bizipenetan oinarritutako metodologia aplikatu dugu, irakasleei aukera eman diena euren azalean sentitzeko ludopedagogiaren bidez esperimenta daitezkeen emozio eta sentimendu ugariak:



Jangelako zaintzaileak, tailerrean parte hartzen

“Irakasleekin lan egitean, gure tresna ludikoak erakutsi dizkiegu, eta azaldu diegu landu nahi duten edozein gaitan egin daitekeela hau: neure burua zaindu, eta inguruan ditudan pertsonak, baita inguruan dudan espazioa ere. Izan ere, neure burua zaintzen hasten bainaiz, nire ondoan dauden pertsonak zaintzen hasiko naiz, eta gero enpatia lantzen, eta lehen oharkabean igarotzen zitzaizkidan gauzez ohartzen hasiko naiz, eta aldatu egingo da pertsona horrekin nuen harremana, eta hura ulertzeko gai izango naiz; eta hori bera gertatuko zait munduarekiko harremanarekin. Eta, bat-batean, munduaren beste ikuskera bat izango dut”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

PROIEKTUAREN LEHEN FASEKO PRESTAKUNTZAREN EDUKIAK

Proiektuaren lehen fasean, bi prestakuntza saio egin ziren: bat interesa zuten irakasleentzat, eta beste bat jangelako zaintzaileentzat.

Prestakuntza horien edukiei dagokienez, hasteko, gaur egungo gizarteko krisiak testuinguruan jarri ziren, eta azaldu zen zergatik den beharrezkoa beste gizarte eredu bat aldarrikatzea, bizitzaren eta zaintzen jasangarritasunean oinarritua. Ondoren, gaiarekin lotutako funtsezko zenbait kontzeptu aztertu ziren, berdintasuna, justizia soziala eta kooperazioa, besteak beste. Amaitzeko, ikasleekin zaintzak lantzeko aukera ematen duten jolas kooperatiboak aurkeztu ziren.

PROIEKTUAREN BIGARREN FASEKO PRESTAKUNTZAREN EDUKIAK

Proiektuaren bigarren fasean egindako bi prestakuntza saioak Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloetako irakasleentzat izan ziren.

Lehenengo zikloko irakasleentzako prestakuntzaren edukiei dagokienez, hasteko, “Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu, II. fasea” kanpaina gauzatzerakoan eskolak zein irakasleek zer behar zituzten aztertu zen. Azterketa horretatik ondorioztatu zen ikasgelan zaintzak lantzeko eta harreman modu berriak sortzeko metodologia nahiz tresnei buruzko prestakuntza espezifikoa egiteko premia.



Haur Hezkuntzako 1. zikloko irakasleak, tailerretan parte hartzen



Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakasleak, tailerretan parte hartzen

Bigarren zikloko irakasleentzako saioan, genero analisi oso nabarmena eginenez landu zen zaintzen gaia, eta helburua izan zen ikusaraztea tresna ludi-koen bidez benetako hezkidetza lor daitekeela. Horretarako, bi zatitan banatu zen saioa. Lehenengoan, gure abiapuntua aztertu zen, baita generoa nola landu ere, eta zer egin genero diskriminazioko egoera batean. Gure jarrerari eta oharkabeko erreakzioei buruz gogoeta eginarazten diguten dinamiken bidez egin zen lanketa hori. Saioaren bigarren zatian, emakumeak ikasgelan integrazio benetakoa eta eraginkorra izatea mesedetzen duten zenbait tresna aurkeztu ziren, genero diskriminaziorik gabeko espazioak sortzen lagun diezaguketenak.

3.3. Ebaluaziorako tresnak

Ebaluaziorako tresnei dagokienez, aipatzekoa da ez dela “ohiko” ebaluazio bat egiten, idatzizko galdera sorta baten bidez, adibidez; izan ere, kanpainaren arduradunaren iritziz, tresna horrek ezin ditu jaso parte hartzaileen emozioak eta sentipenak edo esku hartzea egin ondoren gertatu ahal izan diren jarrera aldaketak.

Illo horretan, ebaluazioa egiteko, **Dixit kartak** erabili ohi dira, besteak beste; gogo aldarreak eta emozioak antzemateko balio duten karta sinbolikoak dira, eta ez dira aurrez ezarritako modu finko batean erabiltzen, ebaluatu nahi denaren arabera baizik:

“Ez ditugu ia inoiz egiten ebaluazio idatziak (galdera sortak), iruditzen baitzait ez dute-la balio nik behar dudana edo nahi dudana jasotzeko. Egia da osagarria izan daitekeela, baina jarduera bakoitzean dixit karta batzuk erabiltzen ditut. Oso karta politak eta sinbolikoak dira, eta ebaluatu nahi dudanaren arabera erabiltzen ditut. Batzuetan, tailerraren hasieran ipintzen ditut, eta partaideei eskatzen diet nola sentitzen diren hobekien islatu eta saio horretan zer lortu nahi duten adierazten duen karta hartzeko. Eta saioaren amaieran ere beste karta bat hartzeko eskatzen diet, saioa amaituta nola sentitzen diren adierazten duen karta bat. Eta aipatzen duten guztia jasotzen dut orduan”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Ikasleekin egindako esku hartzeak ebaluatzeko beste tresna bat tailerraren kita da. Kit hori lehenengo saioan banatzen zaie ikasleei, eta “Bizitza Bilduma” (erregistroa) deritzo. Gutun-azal handi bat da, eta, saioak aurrera doazen heinean, ikasleek tailerretan sortutako zenbait material sartzen dituzte bertan, eta saioetan nola sentitu diren ere idazten dute.

Azkenik, **SENTIPENTSATZAILEA** erabiltzen da. Eduardo Gleanoren hitzetan: “Egia esaten duen hizkuntza hizkuntza sentipentsatzailea da. Gai dena sentituz pentsatzeko eta pentsatuz sentitzeko”. Sentipentsatzaileari esker, ikasleek tailerrean nola sentitu diren adieraz dezakete.

Ikasleek ebaluaziorako tresna horien bidez egiten dituzten oharrak eta ekarpenak blok batean jasotzen ditu bideratzaileak, eta aintzat hartzen ditu hurrengo saioak programatzeko:

“Beti daramat gainean blok bat. Bertan ageri da zer egin nahi dudana, zer egiten dudana azkenean eta gertatutakoari buruzko sentipentsatzaile bat: nola egon garen, bai haiek, bai neu. Partaide bakoitzak kit bat du, eta idatzi egiten du bertan: nola sentitzen den, adibidez”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

POZITASUNA
ALAITASUNA

IKASLEAK
HOBETO
EZAGUTzea

Table &
bultze

• Dibertigarria .

JOLASTEA
gertokoz
dale .

• Lan Kideekin oso
ondo pasatut.

Hasiaren un
ne eto g
Sunc

DIBERTIGARRIA


KOOPERAZIOA

TALDEAN EGITE-
KO JOLAS EGOKIAK
AK

ESPERA

4.

Balorazioa



4.1. Ikasleen ikuspegia

Gogora dezagun ikasleen ikuspegia aintzat hartu eta prozesuari buruz zer iritzi duten ezagutzeko eztabaida talde bat osatu dugula 2015-2016 ikasturtean proiektuaren bigarren faseko esku hartzean parte hartu zuten bost ikaslerekin. Horrez gainera, aurtengo ikasturtean (2016-2017) esku hartzean parte hartzen ari diren ikasleen “Bizitza Bildumak” aztertu dira.

“Zuen ustez, zer helburu izan dute egin dituzuen tailerrek?” galdera eginda, hainbat eratako erantzunak jaso dira, tailerrak egitean ikasleek izan duten ibilbidearen arabera. Hala bada, lehenengo saioaren ostean, gaur egun esku hartzean parte hartzen ari diren ikasleek euren kitetan (“Bizitza Bilduma”) aipatu dute helburua jolastea, ongi pasatzea eta elkarrekin dibertitzea dela. Hori bat dator InteRed Fundaziotik proposatutako metodologiarekin, haren xedea jolasa bera baita, errealitate ludikoa lortuta baino ezingo baita eraldatu errealitatea eta horrela bakarrik sortu ahal izango baita harremanetarako beste modu bat, berdintasunezkoagoa eta kooperatiboagoa.

Nolanahi ere, aurreko ikasturteko ikasleek beste helburu batzuk aipatu dituzte; izan ere, esku hartze osoa gauzatu ostean, ikaskideengan konfiantza handiagoa izateko, taldean lan egiten ikasteko eta harreman berdintasunezkoagoak izateko tresnatzat jotzen dituzte tailerrak:

“Gelan konfiantza handiagoa izatea”. (1. ikaslea, eztabaida taldea)

“Taldean lan egiten ikastea”. (2. ikaslea, eztabaida taldea)

“Lehen genuen berdintasuna ezartzea: mutilak indartsuagoak dira, ez; neskak ere indartsuak dira. Horretan lan egitea”. (3. ikaslea, eztabaida taldea)

“Elkar errespetatzen eta elkarrekin ongi moldatzen ikastea”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

Bestalde, tailerrek aipatutako helburu horiek betetzea lortu duten galdetuta, bi aldiz aipatu dute berdintasuna lorpen nagusi gisa. Zehazki esanda, neska-mutilek jarduerak elkarrekin egitean ikasgelan aldaketa izan dela aipatu dute:

“Adibidez, jolas batzuk egiten genituen, eta neskak eta mutilak nahasita aritzen ginen; hasieran lotsa ematen zigun, baina gero normaltzat jotzen genuen”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

“Hasieran hotz samarra zen: neskak alde batetik, eta mutilak beste alde batetik. Jolas batzuk egin ondoren denak elkarrekin aritzen ginen”. (2. ikaslea, eztabaida taldea)

Gai hori sakonago aztertzeko, eztabaida taldean galdetu da ea nesken eta mutilen artean sortutako hurbiltasun hori gaur egun ere mantentzen den. Gehienek uste dute nesken eta mutilen arteko harremanek lehen baino hurbilagoak izaten jarraitzen dutela, baina ikasle batek aipatu du eskolako beste espazio batzuetan bereizketa dagoela oraindik:



Partaideak hurrengo jolaserako antolatzen

“Ez, orain ez hainbeste. Gimnasia bereizi egiten gara neskak eta mutilak, eta irakasleak esaten digu nahasi egin behar dugula. Batzuek lanak izaten dituzte neska bati eskua emateko, adibidez”. (1. ikaslea, eztabaida taldea)

Gehien gustatu zaizkien jarduerari buruz galdetuta, ikasle guztiek aipatu dituzte ikaskideak hobeto ezagutzeko eta haiekiko harremanak sendotzeko aukera eman dieten jarduerak:

“Niri asmakizunen jolasa, non geure buruari buruzko galderak egiten dizkiguten eta alde-rantziz. Pertsonak hobeto ezagutzeko aukera ematen duelako gustatu zait”. (5. ikaslea, eztabaida taldea)

“Beste pertsona batek helduta zirkuitu antzeko bat egin behar genuen jolasa. Pertsona horren konfiantza nuelako gustatu zait”. (3. ikaslea, eztabaida taldea)

“Ordulariaren jolasa. Ordu bakoitzean ikaskide baten izena jarri, eta harekin zerbaitetarako hitzordua egin behar zena”. (1. ikaslea, eztabaida taldea)

Zaintzaileen taldeari dagokionez, adierazi dute espazio horretan parte hartzeak aukera eman diela erantzukizun printzipioa hobeto ulertzeko eta bestearen lekuan jartzen ikasteko. Horrez gainera, nabarmendu dute guztien artean bizikidetzara arau batzuk adostea onuragarria izan dela talde osoarentzat, saioek aurrera egin ahala ikasleek jokabide egokiagoa eta begirunetsuagoa izan baitute:

“Ikasi dut ni zaintzailea ez naizenean haiek ere gutaz nekatzen direla, beti hizketan edo garrasika ari garelako, eta ohartu naiz nik ere isilik egon behar dudala”. (1. ikaslea, eztabaida taldea)

“Norbaiti txartel gorria ateraz gero, txartela gela osoarentzat zen, eta ikasi genuen hobeto portatu behar dugula, bestela gela osoaren kalterako baita”. (2. ikaslea, eztabaida taldea)

“Tailerren zikloaren amaieran denak portatzen ginen lehen baino hobeto, eta zaila zen esatea nor portatu zen ongi”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

Azterketan sakontzeko, galdetu zaie ea tailerrak lagungarriak izan diren hainbat arrazoi tarteko taldetik kanpo zegoen ikaskideren bat taldean integratzeko, eta tailerrak lagungarriak izan zaizkien bi ikasleren kasuak aipatu dituzte:

“Neska bat oso-oso lotsatia da, eta beti egoten zen bakarrik. Gurekin etortzeko esan genion, eta orain gehiago ibiltzen da gurekin. Tailerrek ere lagundu dute, talde bat osatzen baikenuen”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

“Gure gelan bazen mutil bat, eta gu ez ginen ondo moldatzen harekin. Gero, tailerretara joaten ginenean, atzean geratzen zen, eta txikienekin joaten zen, baina orain gehiago egoten da gurekin”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

“Hitz bakarra erabiliz, esan diezadakezue zertarako izan zaizkizuen baliagarriak tailerrak?” galdetuta, eztabaida taldeko partaideek hitz hauek aipatu dituzte: berdintasuna, errespetua, hurbiltasuna, tratu ona, norbere buruagan konfiantza eta gainerakoengan konfiantza.

Esku hartzearen bideratzaileari buruzko balorazioari dagokionez, oso positiboa izan da. Ildo horretan, hainbat alderdi aipatu dituzte, hala nola oihurik egin gabe ikasleen arreta eta interesa erakartzeko gaitasuna, ulermena, jarrera positiboa eta arazoak izanez gero laguntzeko prestasuna:

“Gela osoa aztoratuta zegoenean, besoa altxatzen zuen, eta denok altxatu behar genuen besoa, denak isildu arte, eta gero hizketan jarraitzen zuen. Ez zuen garrasika ibili behar; besoa altxatzen zuen”. (1. ikaslea, eztabaida taldea)

“Oso jarrera dibertigarria zuen. Ez zen irakasle baten modukoa. Bera ere jolasten zen, eta gurekin dibertitzen zen”. (2. ikaslea, eztabaida taldea)

“Ez ginen inoiz aspertzen, beti animatzen baikintuen jolastera”. (3. ikaslea, eztabaida taldea)

“Gauza asko: arazo bat izanez gero, lagundu egiten zigun”. (4. ikaslea, eztabaida taldea)

“Batzuetan, oso aztoratuta baginen, musika jartzen zigun, lasaitzeko”. (5. ikaslea, eztabaida taldea)

Ikasle batek aipatu du bideratzaileak harrituta uzten zituela ikasleak, bere us-tez pentsaezinak ziren jolasak proposatzen baitzizkien batzuetan:

“Batzuetan ezin imajinatuzko jolasak egiten zituen, guri burutik pasatuko ez litzaizkigukeenak, eta oso dibertigarriak ziren, eta neure buruari galdetzen nion nola bururatu ote zitzaion hori”. (2. ikaslea, eztabaida taldea)

Azkenik, denek adierazi dute atzera egiteko aukera izanez gero berriz parte hartuko zutela tailerretan, eta erantsi dute parte hartzen jarraituko luketela esku hartzea DBHko zikloren batean proposatuko balitz (gaur egun DBHko ikasleak dira).

4.2. Irakasleen ikuspegia

IKASLEEKIN EGINDAKO ESKU HARTZEAN ERABILITAKO PROZESUAREN ETA EZARRITAKO METODOLOGIAREN BALORAZIOA

Balorazio hau egitean aintzat hartu den aldagaietako bat ikastetxeak tailerren diseinuan izandako parte hartzea izan da. Gogoan izan behar dugu InteRed Fundazioa eta Lekeitioko Eskola Publikoa harremanetan jarri ostean bi prestatuntza saio egin zirela, bat irakasleentzat eta beste bat jangelako zaintzailentzat. Haietako batean, ikastetxeak berdintasunari begira zer behar zitu- en aztertu zen, zaintzak ardatz gisa hartuta. Ondoren, InteRed Fundazioan, antzemandako behar horietara egokitu ziren bai proposamen metodologikoa, bai edukiak:

“Ez, nik ez dut parte hartu, baina informazioa jaso genuen, bai. Ikastetxearen beharrez eta gure iritziaz hitz egin zen”. (6. mailako tutorea)

Gainera, beti tailerretan izan ziren bertan parte hartuko zuten ikasleen tuto- reak; izan ere, hori funtsezkotzat jotzen da, ikasleen artean zer harreman mota dauden identifikatzeko eta taldea zer harremanezko dinamika motak arautzen duten jakiteko, besteak beste:

“Ikastetxeak parte hartu zuen irakasleen prestakuntzan, eta ikasleekin egindako lanean, seigarren mailako tutoreek bakarrik parte hartu zuten. Seigarren mailako tutoreak beti daude ikasgelan tailerrak egitean, eta oso ongi etortzen zaie, ikasleek zer harreman mota dituzten ikusteko eta taldetik kanpo nor geratzen den jakiteko... Behatoki bikaina da”. (Hezkidetzako arduraduna)

Horri esker, ikastetxeak aukera izan du tailerren jarraipena egiteko gerora, eta, zenbait kasutan, ikasgelan erabili ahal izan ditu esku hartzeetan landutako ele- mentu eta dinamika batzuk, nahiz eta ez duen modu sistematikoan egin:

“Bai, ni tailerrak behatzen aritu naiz, baina ez egiten ari zirenean esku hartzeko asmoz, guretzat garrantzitsua baitzen espazio eta denbora hori Norarenak (bideratzailea) izatea, ni barruan egonda ere. Gero gelan aipatu dugu egindakoa, baina ez sistematikoki. Batzue- tan, Norak zeregin batzuk ematen zizkien; arduradun batzuk zeuden, eta haiek zeregin jakin batzuk egin behar zituzten, eta gelan egiten zituzten. Beharrezkoa bazen zerbait gelan egitea, gelan egiten genuen”. (6. mailako gela bateko tutorea)

Illo horretan, azaldu dute egunerokotasunaren inertzia eta irakasleek bete behar dituzten gainerako erantzukizun guztiak eragozpen izan daitezkeela tailerretan agertutako gai batzuk sakontasun handiagoz landu ahal izateko:

“Arazoa da tailerretatik gelan lantzeko gai ugari atera baitaitezke ere gero gure eguneroko eskola dinamikan murgiltzen garela eta ahaztu egiten zaigula. Espero dut hori aldatzen joatea. Eta geuk aldatzea. Batzuetan “sistema” aipatzen dugu eragozpen gisa, baina ez da aitzakia: nik hemen egiten dut lan, eta bakoitzak beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egin behar ditu. Gelan hitz egin dezakegu hainbat gairi buruz, eta seguru asko guztion

onurarako izango dira epe luzean... baina hori hilean behingo tartetxo bat besterik ez da". (6. mailako gela bateko tutorea)

Oso balorazio positiboa jaso duen beste alderdi bat tailerren metodologiak eta edukiek taldeen errealitatearekiko izan duten egokitasun maila izan da. Puntu horretan, gainera, bideratzaileak taldeak kudeatzeko eta proposatutako helburuak lortzeko erakutsi duen gaitasun handia aipatu dute:

"Nora oso ona dela iruditzen zait; uste dut oso-oso argi duela zer egin nahi duen taldearekin. Dena oso ongi kudeatzen du. Helburuak lortzen ditu". (Hezkidetzako arduraduna)

Erabilitako materialek ere oso balorazio ona jaso dute:

"Gauza gutxirekin (zapiak, mantak...) asko egin da. Mantak eta horrelakoak ikustean, ikasleek jakin-min handia izaten dute. Eta ekarri dituen jolasak ere oso onak izan dira...". (Hezkidetzako arduraduna)

Gainera, uste dute tailerren bidez genero desberdinkeria-aren eta gatazkak modu baketsuan ebazteko aukeraren gaineko kontzientzia hartu dutela haurrek. Zehazki, berriro aipatu dute tailerren bidez zeharka landu dela hezkidetzaren, taldeetako botere harremanak azpimarratuz eta askotan botere harreman horiek sexuei berezkoak zaizkien desberdintasunetan oinarrituta egon daitezkeela nabarmenduz:

"Bizikidetzaren esparruan bai. Ez du zuzenean lantzen hezkidetzaren, baina bai, ordea, zeharka: botere harremanak landu dira". (6. mailako gela bateko tutorea)

TAILERREN BALIAGARRITASUNA

Proposatutako galderen artean, ikastetxeko irakasleek honako honi erantzun behar zioten: *"Aipatu jasotako tailerren bost alderdi onenak eta hain onak iruditzen ez zaizkizun beste bost, baliagarritasunari dagokionez".*

Alderdi positiboetan, ikasleei zein irakasleei buruzko alderdiak aipatu dituzte. Ikasleen kasuan, haiek motibatu dituen jarduerak izan direla eta ikasleek ilusioz parte hartu dutela aipatu dute nagusiki. Era berean, azaldu dute emozioak lantzeko eta ongizatea sortzeko balio izan dutela, bereziki integrazio zailtasun handieneko ikasleentzat. Gai horretan, azpimarratu dute tailerrekin esker emozioetatik abiatuta landu ahal izan direla zenbait eduki, ohiko eskoletan batzuetan landu ezin direnak, ikasleen prestakuntza akademikoarekin lotutako presioak tarteko. Presio horiek areagotu egiten dira Lehen Hezkuntzako 6. mailako taldeetan, handik gutxira ikasleek institutuan egingo baitituzte Bigarren Hezkuntzako ikasketak:

"Ikasleek ilusioa zuten hasi aurretik, eta ilusioa mantendu egiten zen, jarduera amaitu arte;

laurak ziren jada, eta ikasle batzuek beste zeregin batzuk zituzten, baina ez zuten alde egiteko presarik, beste batzuetan izan ohi duten moduan. Zenbaitek denbora hori behar zuten. Ez dira askorik nabarmentzen, eta iruditzen zait horrelako espazioetan gustura sentitzen direla. Irakasleak gara, eta batzuetan sentitzen dut irakasgaiek dena menderatzen dutela... eta pixka bat itsututa gaudela horrekin. Eta batzuetan pertsona batzuk atzeratuta sentitzen dira, gelatik kanpo egongo balira bezala. Eta gainera seigarren mailan daude, eta hor izaten dugu Bigarren Hezkuntzarako behar bezala prestatzeko presioa... Baina gelan baztertuta sentitzen diren guztiak integratuta sentitzen dira tailerretan". (6. mailako gela bateko tutorea)

"Nire ustez baliagarriak dira. Iaz, ikasle batzuek esan zidaten oso ongi sentitu zirela tailerretan. Eta baten batek esan zuen ez zela oso gustura sentitu, gogoeta eginarazi ziotelako. Ohartzen naiz jarduera horiek gogoeta eginarazten dietela eta lasaitasuna ematen dietela. Harremanetan laguntzen diete, euren barnerantz begiratzen, sentimenduak eta emozioak lantzen...". (Hezkidetzako arduraduna)

Eta berriro bideratzailearen eginkizuna aipatu dute alderdi positibotzat. Erantzunetatik ondoriozta daiteke tailerrak oso egokiro bideratu dituela, bai ikuspegi metodologikoari dagokionez, bai ikasleen artean gogoeta eta ideia trukea sustatzeko gaitasunari dagokionez:

"Noraren rola: oso jarduera argiak ziren, oso argi azalduak, eta dinamismo handia eragiten zuten. Gela ere oso ongi kudeatzen zuen. Eta amaierako gogoeta oso-oso interesgarria zen beti. Gauza pila bat ateratzen ziren...". (6. mailako gela bateko tutorea)

Era berean, tailerrak oso baliagarriak iruditu zaizkie irakasleentzat ere, Inter-Red Fundazioan ezinbesteko babesa aurkitu baitute ikasleen arteko harremanak lantzeko. Ildo horretan, azaldu dute irakasle batzuek segurtasunik eza eta erreparoa adierazi dituztela taldearen kohesioa, enpatia eta ikasgeletako harremanak ikuspegi emozionaletik lantzean:

"Eskoletan, ordubeteko tutoretza izaten da, eta askotan denbora hori ez da nahikoa izaten, ikasleek beti aurkezten baitizkigute arazoak. Aurten, tutoretzari hiru ordu eskaintzea pentsatu dugu, eta zertxobait lantzea Emakunderen Nahiko materiala. Eta irakasle batzuek ez zekiten zer egin; badirudi gaztelania, matematika edo beste irakasgai arrunt bat izan ezean ez dakigula zer egin. Eta honela esan nien: "Hilean behin kohesiorako tailerrak izango dituzue". Eta emozioak nola landu ez jakiteagatik erreparo gehien zituzten irakasleak ere lasaiago gelditu ziren, ikusi baitzuten dena ez zegoela euren esku eta kanpoko laguntza ere izango zutela". (Hezkidetzako arduraduna)

Hobe daitezkeen alderdiei dagokienez, aipatu dute interesgarria izango litzatekeela ordutegiaren kudeaketa hobetzea, tailerrak egiteko erabiltzen den ordu eta erdia oso-osorik aprobeitatu ahal izateko. Esku hartzea gauzatzeko erabilitako espazio fisikoarekin lotuta hobe daitezkeen zenbait alderdi ere aipatu dituzte:

“Gure aldetik, Nora etorri zen lehenengo aldian gimnasio txikian egin genituen tailerrak, eta iaz arazo batzuk izan genituen, eskolaurrekoek ere espazio hori erabiltzen baitute gimnasio gisa. Asko gara eskolan, eta ez dugu espaziorik; gainera, lehen guztiok erabiltzen genituen espazio batzuk ikasgela bilakatu behar izan ditugu. Horrelako jarduerak egiteko espazio zabal bat behar dugu”. (Hezkidetzako arduraduna)

Amaitzeko, taldearen kohesioarekin lotutako alderdiak aipatu dituzte, eta ikasle batzuk bakartuta gera daitezkeela eskolako beste espazio batzuetan, hala nola gimnasioan. Ildo horretan, InteRed Fundazioaren proposamenak oso balorazio ona jaso badu ere, aldaketarako proposamentzat hartzen dutelako, alderdi horretan lanean jarraitu behar dela antzeman dute, taldearen kohesioa sustatzen jarraitzeko eta harreman begirunetsuagoak sortzeko:

“Batzuetan ikasle bat edo beste erdi galduta ibiltzen da oraindik. Aldaketarako proposamenik ezean, bakardade egoera horiek beste espazio batzuetan ere mantenduko lirateke, hala nola gimnasioan. Tailerretan, dinamikek ongi sentiarazten zituzten ikasleak, eta partekatzean oinarritutako jolasak egitea dibertigarria zen, eta bestelako harremanak sortzen ziren”. (6. mailako gela bateko tutorea)

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Irakasleek eta jangelako zaintzaileek egindako prestakuntzaren sistematizazio fitxetatik ondoriozta daiteke egindako lau saioek oso balorazio positiboak jaso dituztela:

“Prestakuntza amaitzean, balorazio sinboliko bat egin genuen: parte hartzaileek aretoko edozein objektu har zezaketen, zer esperimentatu zuten eta tailerrean zehar nola sentitu ziren irudikatuko zuen objektu bat. Balorazioak oso positiboak izan ziren; parte hartzaile batzuek esan zuten arratsalde hartan bertan dinamika batzuk egingo zituztela txikienekin”. (Zaintzaileekin egindako lehen saioaren sistematizazio fitxa)

Ikastetxeko langileei egindako elkarrizketetan informazio zehatzagoa jaso da, eta, adierazi dutenez, prestakuntza horiei esker hobetu egin zen irakasleen arteko harremana, eta hainbat baliabide eskuratu ahal izan zituzten. Oso balorazio ona jaso duen alderdi bat tailerrak bizipenezkoak izatea da, irakasleek beren azalean esperimentatu ahal izan baitituzte gero ikasleekin landu diren edukiak:

“Oro har, jendea oso pozik ateratzen zen prestakuntza saioetatik. Nik ere oso balorazio ona ematen diet, eta uste dut gehiago egin behar liratekeela, jendea kontzientziatzeko. Saio haietan baliabideak eta ideiak geureganatu genituen. Prestakuntzak baliagarriak izan dakizkiguke geure arteko loturak indartzeko. Jende askok gogoan du duela bi urte egin genuen prestakuntzan ohiko komunikazioak apurtu egin zirela eta bestelako konexio bat sortu zela geure artean”. (Hezkidetzako arduraduna)

"Kontzientzia hartzea, irakasleen kohesioa indartzea eta baliabideak izatea. Prestakuntza horietan egoteak aukera eman digu gero ikasleek esperimendatuko zituzten egoerak esperimentatzeko. Bizipenezko alderdia garrantzitsua da". (6. mailako gela bateko tutorea)

Irakasle batzuen erreparokoak ere aipatu dituzte, eta azaldu dute horiek desgertuz joan zirela, prestakuntza saioak egin ahala:

"Irakasleek balorazioa egin zuten, eta oso ona izan zen. Erreparo gehien zituztenek oso ongi pasatu zutela eta ikasleekin egiteko jarduera egokiak iruditu zitzaizkiela esan zuten. Ahozko balorazioa izan zen. Haur Hezkuntzakoek zenbait urte daramatzate jolas kooperatiboak egiten; hobeto ezagutzen dute gaia, eta hasieran erreparo gehiago zituzten. Baina Lehen Hezkuntzakoek ez genuen horrelako ezer egiten, eta asko ikasi genuen. Norarekin oso pozik geratu zen mundu guztia". (Hezkidetzako arduraduna)

Azkenik, prestakuntzetako bat amaitzean, irakasleei eskatu zitzaaien hitz bakar batez deskribatzeko zer atera zuten tailerretatik eta nola sentitu ziren. Hitz hauek erabili zituzten: **gogobetetzea, ikasleak hobeto ezagutzea, jolas berriak ikastea, oso lankide onak ditut, kooperazioa, taldearen kohesiorako prozedurei buruzko lana, egokia taldeko jolasetarako, gozatzea, jolasten ikastea (2), une dibertigarriak, jakin-mina, barrea (2), dibertigarria (3), gozamina, poza, deskarga eta taldea.**



4.3. InteRed Fundazioaren ikuspegia

InteRed Fundazioko kanpaina arduradunaren iritziz, Lekeitioko Eskola Publiko esperientziako gai garrantzitsuenetako bat prozesu gisa lan egin izana da, eta lehenengo irakasleekin eta jangelako zaintzaileekin lan egitea, ondoren ikasleekin jarduteko. Horri dagokionez, hainbat arrazoiengatik (denbora, baliabideak, interesa edo motibazioa) honelako ekimenen aldeko apustua egin ez duten beste ikastetxe batzuek agertutako erreparatuak nabarmendu dira:

“Ikastetxe guztiek ez dute nahi izaten irakasleekin lan egin dezagun. Ikastetxeetako askok ikasleekin bakarrik jardutea nahi dute, ez dutelako denborarik, ezta gogorik ere. Lekeitioko esperientzia polita izan zen irakasleekin hasi ginela lanean, baita jangelako begiraleekin ere. Eta gero jarraipena eman diogula ikasleekin, eta irakasleekin ere lanean jarraitu dugula”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Gainera, ikasleekin hainbat saio egin direnez, lortu nahi zen errealitate ludikoa sortu ahal izan dela eta horrek beste era bateko harremanak sortzen lagundu duela uste da:

“Urtebete prozesuan daramazunean talde batekin eta saioak jarraituak direnean, bidea ematen diozu errealitate ludiko horren sorrerari. Gure helburua (InteRed Euskal Herria) ez da inoiz izan ikastetxean epe mugagabea egotea. Gainera, Lekeition beti egon dira irekita gure proposamenetara, eta begi onez hartzen zituzten. Guk bezalaxe, haiek ere uste dute ludikoak eraldaketa pertsonala eta kolektiboa sortzen duela, eta horrek haien inplikazio bikaina ekarri du berekin”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Bestalde, ikastetxeak hasieran aurreikusitako moduan parte hartu duen galde-tuta, arduradunak erantzun du uste baino askoz hobeto aritu dela eta irakasle-en motibazioa izan dela, hain zuzen, gehien harritu duen alderdia. Horrek ikastetxearekiko kidetza sentimendua sustatu du, eta mesede egin dio, zalantzarik gabe, esku hartzeen arrakastari:

“Ez, askoz hobea. Taldeetako tutoreak ikasleekin egiten nituen saioetan izaten ziren, eta hezkidetzako arduraduna ere joaten zen, eskolarik ez bazuen. Horrez gainera, zenbait irakasle ere parte hartu zuten saio jakin batzuetan. Irakasle batzuek nigan hurbildu dira saioen amaieran, euren ikasgeletarako aholkua eskatzera, eta emandako materialak eta baliabideak ikasgelan erabiliko lituzketela esan didate. Ikastetxeak aintzakotzat hartzen bazaitu eta zure lana aitortzen badu, ikastetxeko kide sentitzen zara, eta oso sentsazio pozgarria da”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Hori guztia lortu da, nahiz eta hasieran irakasle batzuek erreparatuak agertu zituzten tailerren baliagarritasunari buruz eta haien helburua betetzeko aukerari buruz (beste era bateko harremanak sortzea eta botere dinamikak etetea):

“Gure proposamena ez zuten irakasle guztiek ulertzen, eta are gutxiago hark sortzen duena. Talde bakoitza mundu bat da, eta ni harritu egiten naute prozesu bakoitzarekin; hortaz, ulertzen dut esperimendatu arte oso zaila dela ulertzea. Hasieran, denak ez zeuden

proposamenaren alde, baina ikastetxeak eta batik bat hezkidetzako arduradunak haren aldeko apustua egin zuten, eta oso jarrera irekia agertu zuten". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Aipatutako guztiari esker, ez da beharrezkoa izan esku hartzea ikastetxearen beharretara berregokitzea, haren ezarpena areagotzea baizik: batetik, behar horiek aldeztu aurretik landu zirelako irakasleentzako prestakuntza tailerretan, eta, bestetik, ongi funtzionatzeko duen esku hartzea izanik, saio eta talde kopuruak handitzea adostu zelako:

"Ez da beharrezkoa izan esku hartzea berregokitzea, inongo prozesuk ez duelako balio beste talde batentzat eta bakoitzak nortasun berdingabea duelako. Hala ere, zerbait aldatu genuen, bai: esku hartzearen maila, lehen ikasturtean zehar ikasleekin prozesu jarraitu bat egitea proposatu baikenuen. Zenbait irakaslek zalantzak zituzten proiektuaren gainean, eta zer zen eta nolakoa zen jakin nahi zuten. Nolanahi ere, proposamena aurrera zihoan heinean irakasleak inplikatzeko hasi ziren, nor bere erara; saioetan modu aktiboagoan parte hartzen hasi ziren, jolasten, barre egiten eta tarte ludiko batez gozatzen, ikasleen antzera. Horren adibide argia da saioen hasieran taldea eta irakasleak ez zirela garaiz iristen, eta prozesuaren amaieran, berriz, ordua baino lehen iristen zirela tailerraren espaziora". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

IKASKUNTZAK

Zalantzarik gabe, Lekeitioko Eskola Publikoan egindako lana ikaskuntza iturri bikaina izan da, onuradunentzat ez ezik (ikasleak eta irakasleak), baita InteRed Fundazioko kanpainaren arduradun eta bideratzailearentzat ere. Gai horri dagokionez, berriz nabarmendu dute proiektuaren izaera eraldatzailea eta eraldaketa horrek eragina izan duela parte hartu duten alde guztiengan:

"Benetan sinesten dut proiektuaren ahalmen eraldatzailean, eta zalantzarik gabe esan dezaket ez dela izan eraldatzailea soilik ikasleentzat, irakasleentzat, ikastetxeko langileentzat edo ikastetxe osoarentzat; neuretzat ere eraldatzailea izan da, noski". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Nolanahi ere, prozesu gisa eta taldeko ikuspegitik lan egin denez, zenbait unetan beharrezkoa izan da jardueren plangintza berrantolatzea, esku hartzea taldearen beharretara egokitu ahal izateko. Hasieran une horiek zalantzak eta nahasmena ekarri badituzte ere, gero benetako ikaskuntzarako aukera paregabea bilakatu dira:

"Baina prozesuari ekin genionean, "jolasteko" eta proposatzen nien oro "bizitzeko" ilusioz zeuden hiru ikasle talderen ikasteko gogo ikaragarriarekin egin nuen topo. Ez nuen beti asmatu; askotan aldatu behar izan nuen saiorako prestatuko plangintza, behin eta berriz pentsatua, ez zelako hura egiteko une egokia eta ez nuelako asmatu. Imajinatzen dut zure "erosotasun egitura" pikutara doan une horietan partaideek behar dutenera bidera-

tzen duzula berriz arreta; horrexegatik, une horietan ikasi nuen beste edozeinetan baino gehiago. Ikasi nuen partaideak entzuten, egiten zutenaren zergatia ulertzen, baita haien hizkuntza ere. Akatsak egiten ikasi nuen, eta taldeagan konfiantza izaten eraldaketa sortzaile gisa". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Agerikoa da proiektuak ikaskuntzak sortu dituela, egiaztatuta geratu baita jolas errealitatea eraldatzeko tresna bat dela. Hala ere, eraldaketa hori eragiteko, ezinbestekoa da jolastearen onura jasotzen dutenen beharrak entzuten eta asetzen jakitea. Hartara, ikasleak dira prozesuaren ardatz, eta aldi berean jaso eta ematen duten subjektu aktibotzat hartzen dira:

"Ikasi dut zaintzek ardatz izan behar dutela gure lan guztian; ludikoak gure adimenetik harago eraldatzen duela, gorputzetik igaro eta blaitu egiten baikaitu, eraberritzeraino. Eta ikasi dut, halaber, ikasleen artean egiazko eraldaketa gerta dadin haiek entzuten ikasi behar dugula, haien interesak ezagutzen, eta konfiantzazko harremanak ezarri behar direla alde guztien artean, ikastetxean eta gauzatutako prozesu osoan benetan parte har dezaten sustatzeko. Ulertu nuen ikasleak ez direla jasotzera mugatzen diren subjektu pasiboak; aitzitik, hartu-eman etengabea dago alde guztien artean, eta guztiak ardatz dira prozesu horretan. Taldea eta hark une oro bizitzen duena dira nagusi. Baina ez da erraza, eta are gutxiago ikasteko, ezagutzeko, jakiteko eta ikertzeko irrikaz dauden pertsonez osatutako talde batekin. Haiek guztiek irakatsi zidaten nola bideratu arreta taldera, nola desagertu ekuaziotik beharrezko ez nintzenean". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Zalantzarik gabe, ikastetxearen inplikazioa programa honen arrakastari mesede egin dion elementu bat izan da. Ildo horretan, hezkidetzako arduraduna aipatu da; izan ere, programaren izaera eraldatzailean sinetsita zegoenez, eskolak abian zuen hezkidetzako prozesuarekin uztartzea lortu zuen. Horrek guztiak giza harreman guztietan zaintzek duten garrantziaren gainean gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Hortaz, zaintzak ez dira izan prozesuaren helburua bakarrik; eskolaren eta InteRed Fundazioaren artean sortu den konfiantzazko harremana sendotzeko oinarri ere izan dira:

"Mónicaren (ikastetxeko hezkidetzako arduraduna) inplikazioak liluratu egin ninduen; eraldaketan beste inork baino gehiago sinesten duen pertsona batekin egin nuen topo, eta hainbestekoa izan zen hark prozesu osoan izandako inplikazioa, ezen aldatu egin baitzen ikastetxean egoteko nuen modua bera. Berak uztartu zuen InteRed Fundaziotik proposatzen genien lan guztia ikastetxean egiten duten lanarekin. Hasieratik erlazionatu zuen generoarekin; jarrera zuzenak sortzeko borrokarekin; egoteko eta sentitzeko beste modu batzuk sortzeko nahiarekin, irakatsi dizkigutenen bestelako moduak, begirunetsuagoak eta arduratsuagoak. Zaintzen etikan pertsonak dira oinarria, naturala dena, sentimenduak eta ikaskuntza geldi eta sakonak. Eta Mónica, bere izaerarekin eta proiektuarengan zuen fedeararekin, erraz lortu zuen gu zaintzea. Eta gaur egun ere (eta apustu egingo nuke horrelaxe jarraituko duela) ez du galtzen ikasleei egiten diegun ezein proposamen". (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

4.4. Esku hartzearen eragina

Proiektuak sortu duen eraginari dagokionez, informazioa biltzeko fasean jasotako gogoetak bi taldetan bereiz daitezke: ikasleengan izandako eragina eta irakasleengan izandakoa.

Ikasleen kasuan, eskolako irakasle batek adierazi du esku hartzeak areagotu egin duela taldearen kohesioa. Gainera, tailerrak egiteak berekin ekarri du epe luzerako konpromisoak eta erantzukizunak onartzea:

“Kohesio handiagoa dago taldean. Gainera, neska-mutil batzuk zoriontsuago ikusi nituen. Izan dira, halaber, eskolan ongi ibili direnak, baita taldean ere, eta jende hori oso positiboa da taldearentzat. Uste dut horiek indartuta sentitu direla tailerretan. Eta gainera, ikasleek epe luzerako konpromisoak eta erantzukizunak hartzen zituzten”. (6. mailako gela bateko tutorea)

Ilido bereko iritzia du kanpainaren arduradunak eta esku hartzeen bideratzai-leak. Haren ustez, ikasgelan sortutako bizikidetza arauak ezinbestekoak izan dira ikasleek irakasleekin enpatizatzeke eta arau horiek betetzeko erantzukizuna onartzeko:

“Ikasleei dagokienez, badakit gure espazioan sortutako arauetako asko ikasgelan erabiltzen dituztela edo erabili zituztela; badakit, halaber, saio bakoitzean zaintzaile izanda hobe ulertu dituztela irakasleen erreakzioak eta lehen esku hartzen ez zuten hainbat egoeratan bitarteko gisa jokatzeko eta giroa lasaitzen saiatu direla”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Horri esker, berdintasunezko partaidetzaren kultura sortu da, eta indartu egin da taldeko kide izatearen sentimendua, errespetua eta aniztasunaren onespenera funtsezko elementuak izan direlarik beste era bateko harremanak sortzeko, bizitzaren jasangarritasunaren postulatu feministekin bat datozen harremanak, alegia:

“Berdintasunezko partaidetzaren kultura sortu da, eta horrek berekin ekarri du “herri-tarrek” lehen baino askoz gehiago parte hartzea dagozkien espazioetan. Ikasleak euren ikaskuntzen protagonistatzat hartzen dira. Haien interesak eta motibazioak ulertu, eta erritmoak eta denborak errespetatzen dira. Era berean, orain askoz handiagoa da taldeko kide izatearen sentimendua, eta desberdintasunak ulertu eta errespetatu egiten dituzte, aniztasun hori onespeneratik babestuz. Denak dira ezinbestekoak taldearentzat, salbuespenik gabe. Argi ikusi dugu hori: prozesuaren hasieran, taldeak atzean uzten zuen norbait, baina saioek aurre egin ahala, hori jada ez da gertatzen. Berdintasun handiagoko harremanak sortu dira, hau da, zaintzetan oinarrituago dauden parte hartzeko moduak eta jarrerak”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzailea)

Tailerren eragina antzeman daiteke, halaber, lehen taldetik kanpo geratzen ziren zenbait ikasleren integrazioan. Hezkidetzako arduradunak ikasle baten kasua aipatu du: lehen bakarrik egoten zen askotan, eta orain lagun talde batean onartuta dago, eta jarduerak egiten ditu haiekin. Gogora dezagun proiektuan

parte hartu zuten ikasleekin egindako eztabaida taldean ere hitz egin zutela gai honi buruz, eta haiek adierazi zuten ikaskide batzuk taldean integratuago zeudela tailerrak egin ostean:

“Bai, helarazi nahi dugun mezua barneratzen ari dira. Aspaldi, ama bat gugana hurbildu zen, eta esan zigun bere semea oso bakarrik sentitzen zela eta asteburuetan ez zela irte-ten; joan den astean berriro etorri zen, eta honela esan zigun: ‘Gelan landu duzue gaia? Izan ere, whatsapp talde batean sartu dute semea, eta zinemara joatera gonbidatu dute...’. (Hezkidetzako arduraduna)

Irakasleengan izandako eraginari dagokionez, prozesuak batik bat jarreran eragin duela uste dute. Ildo horretan, irakasleek gehiagotan parte hartzen dute tailerretan, eta, horrez gainera, esku hartzearen onura jaso duten ikasleen kasu errealak esperimentatzeak aukera eman die konturatzeko jolasa erreali-tate soziala eraldatzeko tresna bat dela, eta ildo horretan lan egiten jarraitze-ko baliabideak eta ideiak eskuratu dituzte:

“Irakasleengan izandako eraginari dagokionez, espazioan duten jarrerari lotutakoa izan da gehienbat, batzuetan jolasetako batean parte hartzeko eskatzen zaielako eta, bestalde, jolasaren ahalmen eraldatzaileaz ohartzen direlako. Hortaz, jolasari eta gure lanari begira duten jarrera aldatu egiten da”. (Kanpainaren arduraduna eta esku hartzeen bideratzai-lea)



5.

Ondorioak eta gomendioak



Esperientzia honen sistematizazio prozesuan zehar lortutako emaitzetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Ikasleekin zein irakasleekin egindako esku hartzean aintzat hartu dira ikas-tetxearen beharrak. Horrek mesede egin dio programaren arrakastari, eta lagungarria izan da eragin argia sortzeko: batetik, ikasleen arteko harremanak hobetu dira, eta bestetik, irakasleei baliabide gehiago eskaini zaizkie ildo berrean lan egiten jarraitzeko.
- Bestalde, esku hartzea ekarpen teoriko oso garrantzitsuetan oinarritu da, eta, horri esker, beti aurrean izan da jomuga ziur bat, aldian-aldian aztertzeko ea metodologia ongi egokitzen zitzaizen lortu nahi ziren helburuei.
- Ikuspegi metodologikotik, tailerretan parte hartzea aukeratzeko askatasunak ikasleen auto-berrespena sendotu du. Gainera, alde aurretik ezarritako gidoia malgua izateak jarduerak taldearen beharretara moldatzea ahalbidetu du, eta, hortaz, eraginkortasun handiagoz lan egitea. Baina garrantzitsuena zera da, partaideen elkar ezagutza eta haien arteko harremana indartzen duten tailer-rrak izan direla, konfiantza handitu eta taldearen kohesioa sendotu dutenak.
- Aurretik aipatu denez, tailerrak behatoki garrantzitsu ere izan dira, bertan egindako jolasen bidez ezagutu egin baitaiteke zer dinamika diren nagusi taldean eta, zehatzago, zer harreman dituzten taldekideek euren artean eta nork dituzten zailtasun handienak taldean integratzeko. Informazio hori edukitzea oso lagungarria da irakasleentzat, gelan ikasleen arteko harremanak lantzen jarraitu ahal izango baitute, tailerretan lortutako datuak abiapuntutzat hartuta.
- Nolanahi ere, bildutako informazioak erakusten du ikasgeletan ez dietela beti jarraipena ematen tailerretan landutako edukiei. Tailerretan ezarritako bizikidetza arauak ezartzen dituzte ikasgeletan, bai, baina interesgarria izango litzateke irakasleek eta beste profesional batzuek nolabaiteko estrategia bilatzea curriculumeko irakasgaietan zeharka sartzeko zaintzen gaineko lana. Horretarako, interesgarria izango litzateke irakasleentzako prestakuntza sustatzea; prestakuntza horrek saio gehiago izango lituzke, eta xedetzat izango luke kanpoko erakundeen lanaren (kasu honetan InteRed Fundazioa) eta curriculumeko edukien arteko lotura areagotzea.
- Ildo beretik, datuek adierazten dute beharrezkoa dela eskola komunitate osoaren inplikazioa handitzea. Proiektu honetan inplikaturik egon dira hezikidetzako arduraduna, 6. mailako irakasleak eta prestakuntzak jaso dituztenak, baina interesgarria izango litzateke gogoetarako eta eztabaidarako espazioak sortzea, profesional guztiek elkarrekin lan egin dezaten, zaintzak txikienekin ere lantzen hasteko estrategia bat ezartze aldera. Hartara, eragin handiagoa lortuko litzateke epe luzera. Nolanahi ere, hori egin ahal izateko, hezkuntza komunitateak ados egon behar du, eta gaiak duen garrantziaz ohartu behar du; hortaz, lehentasunezkoa da gai horien gaineko sentsibilizazioari heltzea.

- Era berean, ikasleekin esku hartzeak egiteko espazio eta denbora egokia-goak ezartzeko beharra antzeman da. Erabilitako denborazko formula (urtean 12 saio, hilean behingo aldizkakotasunarekin) bat dator ikastetxearen eskakizunekin, baina datuek agerian utzi dute ikastetxearen antolamendua indartu egin behar dela, tailerrak hasteko eta amaitzeko orduak errespetatu daitezen eta erabilgarri dagoen denbora ahalik eta hobekien aprobetxatu dadin. Hori bera hartu beharko litzateke kontuan tailerretarako espazio fisikoa hobetzeko.
- Proiektuari buruz eskuragarri dagoen informazioari dagokionez, azterketarako material ugari izan da, nahiz eta ordenatu eta sistematizatu egin behar izan den. Beste edizio batzuetarako hobetu beharreko alderdi bat ebaluaziorako tresnak dira. Zalantzarik gabe, erabilitako tresnak oso aberasgarriak izan dira, esku hartzeetan parte hartu dutenen emozioak eta sentipenak ezagutzea baitzuten helburu, baina komenigarria izango litzateke iritzi horiek idatziz jasotzea eta aztertu ahal izatea, bai informazioa transferitzeko, bai hobeto daitezkeen elementuak antzemateko.
- Ebaluazioei begira, eta kontuan hartuta zer nolako garrantzia duten ikasleek prozesuan, interesgarria izango litzateke elkarriketarako eta trukearako espazioak bilatzea, talde horren iritziak ezagutzeko, eta komeni litzateke modu sistematikoan egitea, aintzat har litezkeen beste gai garrantzitsu batzuk identifikatu ahal izateko.
- Bestalde, prozesuan zehar antzeman da proiektua oso pertsonalizatuta egon dela ekimen honen arduradun eta bideratzailean. Zalantzarik gabe, elementu positiboa da hori, baina interesgarria izango litzateke InteRed Fundaziotik espazioak bilatzea erakundeko beste langile eta boluntario batzuek ere hurbilagozik ezagut dezaten ekimen hau eta haren ñabardurak. Horrek bermatu egingo luke informazioaren transferentzia, baita proiektuak beste edizio batzuk izatea ere, hura behar bezala gauzatzea pertsona jakin baten mende egon gabe.
- Lekeitioko Eskola Publikoan egindako lanak eta InteRed Fundazioaren eta ikastetxearen artean sortutako harremanak karga emozional handia dute. Lido horretan, une oro antzeman da gogor sendotu direla bi erakunde horien arteko loturak, eta horrek elkarren arteko ikaskuntza bi noranzkoko izatea ahalbidetu du. Beraz, eskolak gehiago daki ikasleei buruz eta haien arteko harremanei buruz, eta ikasi du ludopedagogia harreman eraldatzaile eta berdintasunezkoak sortzeko tresna dela, baina, aldi berean, InteRed Fundazioak, esperientzia honen bidez, ikasleengandik nahiz irakasleengandik ikasi du, eta ikasitakoari esker esku hartzea hobetu ahal izan du, testuingurura eta talde horien eskakizunetara egokituz.
- Hori guztia dela eta, esan daiteke garrantzitsua dela Lekeitioko Eskola Publikoan zaintzen etika lantzen jarraitzea eta komeni dela esku hartzea jasotzen duten taldeen kopurua handitzeko aukera aztertzea. Era berean, interesgarria

izango litzateke herriko beste hezkuntza espazio batzuekin koordinatzea, hala nola Bigarren Hezkuntzako Institutuarekin, Lehen Hezkuntzan egindako lanari jarraipena emateko eta ikasleei babesa eskaintzeko errespetuan oinarritutako harremanak finka ditzaten helduek hartzen duten prozesuan.



6.

Bibliografia eta baliabide interesgarriak



METODOLOGIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA:

- InteRed. (2017). *Ludopedagogía. Jugar para conocer, conocer para transformar*. Donostia. Eskuragai: <http://www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/06/libro-ludopedagogia-cast.pdf>
- InteRed. (2015). *Etenaldia. Jolas kooperatiboa, eraldaketarako tresna gisa*. Donostia. <https://intered.org/recursos/juegos-cooperativos/tiempo-entre-parentesis-el-juego-cooperativo-como-herramienta-de>
- InteRed. (2013). *Jugar y Actuar. Nuestras armas para la paz. Juego teatral y procesos colectivos de aprendizaje*. Madril. Eskuragai: <https://www.intered.org/recursos/recursos-educativos/jugar-y-actuar-nuestras-armas-para-la-paz-juego-teatral-y-procesos>
- InteRed. (2015) *Familian jolastea, jolas kooperatiboak ezagutzen*. Donostia. Eskuragai: http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2016/03/FINAL-JuegosCooperativos_06EUSKenfren.pdf
- InteRed. (d.g.). *Descubrir otra manera de jugar*. Donostia.
- InteRed. (d.g.). *Juegos cooperativos para Construir la Paz*, tomos I y II. Donostia
- InteRed. (2014). *Universo de emociones. Experiencias de Arte Terapia y Cuidados para la Movilización Social*. Madril. Eskuragai: <https://www.intered.org/recursos/recursos-educativos/universo-de-emociones-experiencias-de-arteterapia-y-cuidados-para-la>
- InteRed. (2012). *Baúl para un mundo mejor, Recopilación de propuestas metodológicas de Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global*. Madridl Eskuragai: <https://www.intered.org/recursos/recursos-educativos/baul-para-un-mundo-mejor>

KANPAINARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA:

- InteRed. (2016). *La revolución de los cuidados para ti y para mí*. Madril. Eskuragai: <https://www.intered.org/recursos/recursos-educativos/la-revolucion-de-los-cuidados-para-ti-y-para-mi>
- InteRed. (2014). *Zaintzen Iraultza. Taktikak eta estrategiak*. Madril. Eskuragai: <http://www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/02/Zaintzen-iraultza-2015.pdf>
- InteRed. (2014). *Cómo ser un cole de cuidado*. Zaragoza. Eskuragai: <https://www.intered.org/recursos/recursos-educativos/como-ser-un-cole-de-cuidado-propuestas-para-tu-centro-educativo>
- InteRed. (2012). *La revolución de los cuidados*. Madril. Eskuragai: <http://www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/01/La-revolucion-de-los-cuidados.pdf>
- InteRed. (2012). *Zaintzen bidez hazi. Irakasleentzako Gida didaktikoa*. Donostia. Disponible en: http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2012/10/JENGA_EUS.pdf
- InteRed. (2012). *Crece con cuidados, El juego de la Jenga*. Madril. Eskuragai: http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2012/09/guiaJEGA_versi%C3%B3n_web.pdf
- InteRed. (2012). *Pistas para un modelo de vida sostenible*. Madril. Eskuragai: http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2012/03/Pistas_vida_sostenible_ACTR_versi%C3%B3nweb.pdf

ERREFERENTZIAZKO WEB ORRIAK:

- Fundación Interred. (d.g.). www.intered.org
- Red de centros educativos para el desarrollo y la ciudadanía global. (s.f.). <http://redciudadaniaglobal.org/actua-con-cuidados/>
- InteRed. (2016). Pedagogía de los cuidados. Blog. <http://www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/>
- La Mancha. (d.g.). Centro de investigación y capacitación en ludopedagogía. <http://www.mancha.org.uy/#!/-en-un-lugar-de-la-mancha/>
- Juegos Kometa. (d.g.). www.kometak.com

InteRed

hezkuntza eraldatzailearen alde